

NECAZARIYEN CARTILLACHUA

BIZCAICO EUSQUERAN

JUAN J. de MUGARTEGUI

ABOGADO

MARQUINA



BILBAO

Imprenta provincial

1909

329148

AV
43882

NEAZARIYEN CARTILLACHUA

BIZCAICO EUSQUERAN



BILBAO
Imprenta provincial
1909



Esprezo este humilde trabajo á la Exema. Diputación de este Señorio, que tanto se desvela y hace para bien y prosperidad del laborioso y sufrido labrador de este noble Señor; si algo bueno hay en él, sea á mayor honra y gloria de Dios, origen de todo don perfecto, y provecho y utilidad del humilde trabajador del campo; si nada de interés se encuentra, confío en el bondadoso corazón del labrador hallar suficiente indulgencia para este desacierto, que no ha sido hijo de la voluntad de

El Autor.







ASIYERIA

Lurlantzallai

Esan eutzan Jaungoicuac Adaneri: «Nire esana baño, lenago eguin dozun esquero zeure emastearena, nequetzua izango dozu lurra, eta ta elorriyac emongo deutzuz; ta becoquico izardiyaz irabazirico oguiya jango dozu, urten dozun lurrera biurtu arteraño.» Eta une atan sartu ziran munduan negarra, zispurua, gozia, egarriya, ezeuquiya, esturia, ta gueugan dacuzcuzan gach bildurgarriyac; ordurarte guramenpian egozan griñac, jagui ziran guramena-
ren contra, guramena adiñaren contra, ta adiña Jaungoicoaren contra, sartu zan atsacabia, lanqueri-
yoa, guerria, puzoitza, gorrotua ta icusieziña, berba baten inguraturic gauquezan zorigach guztiyac; ta ez dago mundu onetan guizonic, gach onen azpiyan ez daguanic, zarrac eta gastiac, aberatzac ta ezeuqui-
yac, jaquitunac ta ez jaquiñac, artzañac ta erreguiac, danoc gagoz gach onen menpian, danoi Adanegan esan euzculaco Jaungoicuac: «*In sudore vultus tui ves-*
ceris pane, donec reverteris in terram.» Becoquico izar-
diyaz irabazirico oguiya, jango dozu, urten dozun lurrera biurtu arteraño.

Egon bedi bat urrez ta zidarrez inguraturic; guizon au izango da azaletic edo munduaren erechiyan dontsua ta zorionecua, edolabere guizon au dago gach onen azpiyan, ta auzaz luguin ta arzañac baño lor ta lanqueriyo gueyagogaz, auzaz biyotzian irantziric daucan ondamuac, edo asco badauco, gueyagoren goziac, edo daucazanac ondo zaintzeco ardura larreguiyac, loric eiten izten ez deutzalaco: «*Dormit nocte parum possesor divitiarum*», eta utzic eguin ezin leiquianac bere, au da, Espiritu santuac dirauzcu: «*Saturitas autem divitis non sinit eum dormire*». Ondasun larreguiyac ez deutzala izten loric eguiten.

Iracurten da condairetan, Alejandro andiyac entzun eutzanian Anaxarco filosofuari, ezin cembatuala mundu egozala, asi zala sotinca zispuruca ta negarrez; ta itanduric bere lagunac, zergaitic eguiten eban ainbat ulu ta negar, erantzun eutzela ¿Ez derichazue ziyo andiyaz negar eguiten dodala, egonic, onec diñuanec, ainbat mundu, ezin izan badogu menderatu bat?

Bere menpian eucazan erreñuac, emoten eutzen atseguña baño, ascozaz zan andiyagoa, menderatu, bariac eucazan erreñuac, emoten eutzen nequia. Zebatuten deuzcu, San Basilio: Alejandro erregue andi onec icusiric bein baten Diógenes filosofua ain baldrez janzita, esan eutzala: «Erechi baten premiña andiyan zagoz, escatu eidazu, ta emongo dentzut.» Ta erantzun eutzala Diógenes filosofuac: «Jauna, ¿zein da aberatzagua, gañezca gauzia daucana, ala gueyagoren gozia daucana?» «Dudatzaca, erantzun eutzan Alejandro, gauzia gañezca daucana» Berbertatic esan eutzan Diogenesec: «Jauna, orduan ni ascozaz naz zu baño aberatzagua, nie gura dodan baño

gueyago daucadalaco, bada ni daucadanaz, bizi naz atseguñez, ta beste gauzaric ezdot nic opa, barriz zuri dana falta jatzu, ez aseturic daucazunagaz, gueyagoren gozia daucazulaco.

Autortu daigun, bada, aberaztasun eguiyazcoa ta bizitza onetaco dontzotasun ta zoriontasuna ez daguala asco euquitian, Jaungoicuae bati emon deutzanagaz atseguñez bizi izatian baño, ez pobrezia dago, ez euquitian, eta bai, gueyagoren goze ta egarri amorrrotuan.

Luguñac, neure biyotzeco cutunac, neguan lei lacarraldu artian, ta udan eguzqui galdatan, ta zarrizarriz colcotie ziar euri tantacac dariyola, lurraz burrucan zabilzenoc, azaletic edo munduaren erechian doecabetzuac zare, baño barrutic benetan ta eguiyaz dontsuac ta zorionecuae ¿zer esango dot bada zubeegaitic? Eguiyaz zariela dontsuac ta zorionecuae; erregue bera jargoyan baño ascozaz obetuago bizi zarielaco zeuben echechuan, ezeren ondamu baga; oetic ara esquiniric Jesusen Biyotz garbiyari egun ataco gogoraziño, berba ta arazu guztiyac, arturic achurra lepuan, juan solora, egun guztiya lurraz burrucan emon, iru edo lau baba jan, ur trago bat picharretic edo potixetic eguin, pipada bat bota, ordua danian Abe Mariya bat errezau Ama Birgiña Pilar Zaragozacuari, ta arratzian apal oztian errosariyo santua errezau ezquero, ichiric Jaungoicuaren ardurapian zeuben soluetaco landara ta labore guztiyac etzeten zarielaco nazai-nazai ezeren buruco minbaric; zubez zare bai, nire beguiyetaco betzeñac; ta zubei deutzubedan maitetasuna gaitic artu neban arlo au, tautic jaquin baric, ez zelan artu achurra escubentan, zubei iracazteco, zelan artu labore onac aurre-

rantzian, zelan erein biar dozuben gariya, zelan artua, zelan lurzagarra edo patatia, zelan arbiya etcétera, etc., bacar bacarric zubez ondo icustiarren; orain badaucazube lau marai, biyar euqui daguizuben zortzimarai. Baña enaz ni bacarric zuben adizquidia, adizquide asco daucazubez adierazo daben leguez, niri liburuchuanu escribietan lagundu deuzten guztiyac, bazue berbaz, beste batzuc escrito ederracaz, ta beste ascoc erderazco liburucacaz.

Biyotzaren barren-barretic esquintzen dentzube-dan liburuchu au, artu eguizue abegui onaz ta berac emon daguizubela arguitasun asco, orain arte baño labore gueyaco ta obago artzeco, ta emon daguiyozubezala esquer andiyacé gauza guztiyen emolliari, au da, nic ordezescatzen deutzu bedana.

EGUILLIAC.

Durango-n 1908-co irailaren 8-an.



Gariya

Gariyaren laboria da labore guztiyen artian lenen ta aurrenengua. Alan bere; gariyaren laboria izango da gaurco egunian, obariric guichien emoten dabena, esarten ezpayacaz, bera erein aurretic ta oztian, lurlantzallen edo nequezariyen adisquideric onen ta jaquintzuenac itunduten dezcuezan ongarri, simaur ta abono quimicuac.

Garitaco lurric on ta egoquiyeñac dira care-lurraç, edo care-buztin lurraç; baña alan-bere are lurrian, larrayan ezpadira gosagachac, erein ley ta emongo bere dau bere obariya.

Gariya erein aurretic biar da ondo layatu edo goldatu, landu ta garbitu lurra, aututen dala onetaraco, aurretic allorba, pagoch edo ganaduentzat beste irucoch edo bedar muetaren bat, edo luzagar edo patatia artu dan solo bat.

Garitaraco biar diran ongarri, simaur edo abono quimicuac, aurretic allorba, pagoch edo ganaduentzat beste irucoch edo bedar muetaren bat artu dan soluan, dira *nitrate sosa* ta *superfosfato*. Ara zelan.

Solua bade amar areacua, au da, berraun, ta irarogueta bi estatucua, amabost kilo *nitrate sosa*, ta berrogueta bost kilo *superfosfato*.

Solua bada oguei areacua, auda, bosteun ta ogueta bost estatucua, ogueta amar kilo *nitrate sosa*, ta larogueta amar kilo *superfosfato*.

Solua bada ogueta amar areacua, au da, zaspireun ta larogueta zaspí estatucua, berrogueta bost kilo *nittrato* ta eun ta ogueta amabost kilo *superfosfato*.

Solua bada berroguetari areacua, au da, milla ta berrogueta amar estatucua, iraroguetari kilo *nittrato* ta eun ta laroguetari kilo *superfosfato*.

Solua bada berrogueta amar areacua,, au da, milla irureun ta ogueta emeretzi estatucua, irurogueta amabost kilo *nittrato* ta berreun ta oguetabost kilo *superfosfato*.

Solua bada iruroguetari areacua, au da, milla bosteun ta irurogueta amabost estatucua, larogueta amar kilo *nittrato* ta berreun ta irurogueta amar kilo *superfosfato*.

Solua bada irurogueta amar areacua, au da, milla zortzireun ta ogueta amazortzico estatucua, eun ta bost kilo *nittrato* ta irureun ta amabost kilo *superfosfato*.

Solua bada laroguetari areacua, au da, bi milla eun ta bat estatucua, eun ta oguetari kilo *nittrato* ta iruroguetari kilo *superfosfato*.

Solua bada larogueta amar areacua, au da, bi milla irureun ta, irarogueta iru estatucua, eun ta ogueta amabost kilo *nittrato* ta bosteun ta berroguetari kilo *superfosfato*.

Solua bada hectarea bat, au da, bi milla seireun ta ogueta sei estatu ta ogueta sei oiñ, eun ta berrogueta amar kilo *nittrato* ta lareun ta berrogueta amar killo *superfosfato*.

Orain icusi daigua luzagarraren edo patiatiazen oztian erein badañ gariya, ze neurritan botabiar dan incari edo abono quimicua.

Solua bada amar areacua, au da, berreun ta iru-

roguetabi estatucua, ogueta amar kilo *nittrato* sosa, ta iruroguei kilo *superfosfato*.

Solua bada oguei areacua, au da, bosteun ta ogueta bost estatucua, iruroguei kilo *nittrato* ta eunta oguei kilo *superfosfato*.

Solua bada ogueta amar areacua, au da, zaspireun ta berrogueta zaspi estatucua, larogueta amar kilo *nittrato* ta eunta larogueti kilo *superfosfato*.

Solua bada berrogueti areacua, au da, milla ta berrogueta amar estatucua, eun ta oguei kilo *nittrato* ta berreun ta berrogueti kilo *superfosfato*.

Solua bada berrogueta amar areacua, au da, milla irureun ta ogueta emeretzi estatucua, eun ta berrogueta amar kilo *nittrato*, ta irureun kilo *superfosfato*.

Solua bada iruroguei areacua, au da, milla bosteun ta irurogueta amabost estatucua, eun da larogueti kilo *nittrato*, ta irureun ta iruroguei kilo *superfosfato*.

Solua bada irurogueta amar areacua, au da, milla zortzireun ta ogueta amazortzi estatucua, berreun ta amar kilo *nittrato*, ta laureun ta oguei kilo *superfosfato*.

Solua bada larogueti areacua, au da, bi milla eunta bat estatucua, berreun ta berogueti kilo *nittrato* ta loregueti kilo *superfosfato*.

Solua bada larogueta amar areacua, au da, bi milla irureun ta irarogueta iru estatucua, berreun ta irurogueta amar kilo *nittrato*, ta bosteun ta berrogueti kilo *superfosfato*.

Solua bade hectarea bat, bi milla seireun ta ogueta sei estatu daucazana, irureun kilo *nittrato*, ta seireun kilo *superfosfato*.

Superfosfatoa zabaltzen da soluan irran, ta andie

aste bi edo irura ereinten da gariya, ta lenengo jorraldiyan zabaltzen da, soloari jaocan *nitrate*.

Oraindio ascozaz obetuago, soluac biar daben *nitratuaren* irugarren parte bat nastetan bada, soluac biar daben *superfosfatuz* ta zabalduten bada irran solo gustiyan. Onen ganera guero botaten da, ascoc zezeillan ta beste ascoc gariya erein aldiyan bota oi daben cortaco satza, ta andie aste bi edo iru ereinten da gariya irran. Barriz milla bidar obetuago, ereingo balitz ubidean artua leguez, eguin zulochuac zentimetro bitic bosterañocuac, ta bertara gari garauna botiaz, bada orduan ez bacarrie gari buruac baita bere lasto guztiyac artuco leuque euzqui gueyago, bere sustraya egongo litzateque sutun-sutunic aixe boladetan.

Lenengo jorraldiyan zabalduten da enparau dan *nitrate* sosa.

Gariya ebaguiten danian, ardura andiyaz aututen dira gari bururic onenac, urrengo urtian ereinteco biar dan beste, anega bat, anega bat biar dabenac, cuarta bat, cuarta biar dabenac, bacochoac biar daben beste, ta buru onei ebaguiten jacaz puntu biyac, ta erdico garauna da, erein biar dana. Gari buruaz eguin biar dozue, artu buruaz eguiten dozubena.

Artua

Artua artzen da edozeinbere lur mueta guztietan, beruac ta ondo ongarrituta dagozan lurrae badira; baña obaririe gueyenenguac dira, bustin antzeco lurrrian artuicuae.

Artua ereinteco autuico solua, sastu biar da uragoyenian, negua baño lenago; ta uda barriyan, gol-datu, landu ta guero *superfosfatuaz* gozatu biar da, ta andie aste bi barru erein, ta erne dediñian, bota *nitratua* bizcortu dedin.

Artuan ez dago, gariyan leguez, jauzteco arriz-curie, incari edo abono larregui eguin arren, lastua daucalaco lodiya; gariyan euqui biar de ardura andiya, izentauta daguan baño incari edo abono guyago ez eguiteco, lastua meia dalaco.

Artua ereinten da, orrillaren erditie baguillaren erdira bitartian, lurra zerbait berotuta daguanian: irran ereinten da; baña ubidean ta zeinbat eta mie-tzago, ainbat eta obetuago da, bada eguz quiyac obetuago gozatuco dau landara guztiya, ezetasuna obetuago ibilico da landara guztitie ta landaria errezago mardotuta, buru andiyaguac eguingo jaeaz. Landara batetic bestera guichienez biar da cana erdi. Mietz erein da, landara guichiago egongo da, baña artu buru gueyago, landariae campo gueyago daucalaco mardotu ta artu buruac gozo azteco.

Uda barriyan, lurra zerbait berotu deitenian,

goldatu, layatu ta landu ta guero, botaten da lurrera irran *superfosfatoa*, ara ze neurritan:

Solua bada amar areacua, au da, berraun ta irurogueta bi estatucua, berrogueta amar kilo *superfosfato* ta amabost kilo *nittrato*.

Solua bada oguei areacua, au da, bosteun ta oguetabost estatucua, eun kilo *superfosfato*, ta ogueta amar kilo *nittrato*.

Solua bada ogueta amar areacua, au da, zaspireun ta larogueta zaspí estatucua, eun ta berrogueta amar kilo *superfosfato*, ta berrogueta bost kilo *nittrato*.

Solua bada berroguei areacua, au da, milla ta berrogueta amar estatucua, berraun kilo *superfosfato*, ta iruroguei kilo *nittrato*.

Solua bada berrogueta amar areacua, au da, milla irureun ta ogueta emeretzi estatucua, berraun ta berrogueta amar kilo *superfosfato*, ta irurogueta amabost kilo *nittrato*.

Solua bada iruroguei areacua, au da, milla-bosteun ta irurogueta amabost estatucua, irureun kilo *superfosfato* ta larogueta amar kilo *nittrato*.

Solua bada irurogueta amar areacua, au da, milla zortzireun ta ogueta amazortzico estatucua, irureun ta berrogueta amar kilo *superfosfato*, ta eun ta bost kilo *nittrato*.

Solua bada laraguei areacua, au da, bi milla eun ta bat estatucua, laureun kilo *superfosfato* ta eun ta oguei kilo *nittrato*.

Solua bada larogueta amar areacua, au da, bi milla irureun ta irurogueta iru estatucua, laureun ta berrogueta amar kilo *superfosfato* ta eun ta ogueta amabost kilo *nittrato*.

Solua bada hectarea bat, au da, bi milla seireun

ta ogueta sei estatu ta ogueta sei oiñecua, bosteun kilo *superfosfato*, ta eun ta berrogueta amar kilo *nitrate* (1).

Solua ondo landu ta garbi daguala, botaten da *superfosfatua* izentau dana leguez, ta andic aste bi barru ubidean ereinten da artua, zeinbat eta miezago obeto, eguzquiyac obetuago gozatuco dabelaco laudaria, ta frutu ederragua emongo dabelaco, ta baita bere ugariyago.

Ez gara beinbere asetuco itunduten, gueure be-guiyetaco betzeña leguez, maite doguzan lurantzalla edo nequezariyac, artu buruac, zeinda gari buruac punta biyetatitic ebagui dayezala, erdico garaunic onenac ereinteco urrengo urtian.

Artua erne dedinian, zabalдутen da *nitratua* solo guztitic ariaz edo lurraz naztian. *Nitratua* dana luguez gatzaren antzecua, ebaguiren badago escuan, biar da estaldu escua zerbaitegaz, erre ez daguiyon zauritua.

(1) Artuarentzat izentan dogun *superfosfatua* da goyenengua, izentau dan erdiyaz bere, artuco da labore ona.



Lurzagar edo patatia

Lurzagar edo patatia da gaurco egunian, oguiya leguez premiña andicua, ez dagualaco echeric, egüerdico ta gaubeco janaldiric berau бага eguiten ez daniel. Guztioi, bada, jaocu lurzagar edo patata ascò, ugari ta oneneticua artu dedin arcuntza gnztietan.

Lurzagarra edozein bere lurretan artu leiteque, lur au urtzua ezpada, edo liorra bada, baña onena ta egoquiyena da bustin lurra. Lurra bada urtzua, biar da liortu ubidiac idiguiric, bada lur urtzuan daguan lurzagarra, laster gorreñaz zetatuco da.

Lurzagarra edo patatia ereinteco autu dan solua, goldatu edo layatu ta landuco da negu aurretic, guero negua leyacaz ta edurracaz gozatu dedin.

Lurzagarra ereinteco biar diran incari edo abonuac dira cortaco satza; zaldi ta ardiyena ez dira egoquiyenac, azoe ascò dauquelaco, ez da cortaco satz ein barriya bere, onec laster gorrinduten dabilaco, ezpada cortaco satz zarra, *superfosfatu* ta *nitratosa*. Ara ze neurritan. Solua bada amar areacua, au da, berraun ta irurogueta bi estatucoa, amabost kilo *nitrate* ta berrogei kilo *superfosfato*.

Solua bada oguei areacua, au da, bosteun ta ogueta bost estatucoa, ogueta amar kilo *nitrate*, ta larrogei kilo *superfosfato*.

Solua bada ogueta amar areacua, au da, zaspireun ta larogueta zaspì estatucoa, berrogueta bost kilo *nitrate*, ta eun ta oguei kilo *superfosfato*.

Solua bada berroguetari areacua, au da, milla ta berrogueta amar estatucua, iruroguetari kilo *nitrate* ta eun ta iruroguetari kilo *superfosfato*.

Solua bada berrogueta amar areacua, au da, milla irureun ta ogueta emeretzari estatucua, irurogueta amabost kilo *nitrate* ta berreun kilo *superfosfato*.

Solua bada iruroguetari areacua, au da, milla bosteun ta irurogueta amabost estatucua, larogueta amar kilo *nitrate*. ta berreun ta berroguetari kilo *superfosfato*.

Solua bada irurogueta amar areacua, au da, milla zortzireun ta agueta amazortzari estatucua, eun ta bost kilo *nitrate*, ta berreun la larogueta amar kilo *superfosfato*.

Solua bada laroguetari areacua, au da, bi milla eun ta bat estatucua, eun ta oguetari kilo *nitrate* ta irureun ta oguetari k *superfosfato*.

Solua bada larogueta amar areacua, au da, bi milla iruren ta irarogueta iru estatucua, eun ta ogueta amabost k *nitrate* ta iruren ta iruroguetari k *superfosfato*.

Solua bada hectarea bat, au da, bi milla seireun ta ogueta sei estatu ta ogueta sei onecua, eun ta berrogueta amar kilo *nitrate*, ta laureun kilo *superfosfato*.

Bacochae bere soloraco biar daben beste *nitrate* ta *superfosfato* artu ta guero, biyac nastau biar dauz.

Solua garbi garbi daguala, luzetara baric, zabale-tara, idiguiten dau ubide bat, ta ichiric bitartian berrogueta amar zentimetro daucan zabalera bat, idiguiten da beste ubide bat, ta alanche ubidez bete biar da zolo guztiya. Guero lenengo ubidean idiguiten da zulo bat bederatzi zentimetrocua, lurra bada

ariña, barriz zaspi zentimetrocua gogorra bada. Zulo batetic bestera, biar da egon berroguet zentimetroco bitarte bat, zeinbat eta mietzago, larreyan baric ereinten dan patatia, obago, gozatzuago egongo dalaco landaria lurrian, gueyago zabalduco dalaco, ta buru garaun gueyaco sortuco diralaco.

Zulora lenengo bota biar da cortaco satza beti leguez, guero collara andi bat, bete *nitrate* ta *superfosfato* nastauta, lurraz estaldu edo tapetan da abonoguztiya, ta lurraren ganian ereinten dan patatia zeinbat ta zil gueyagogaz obago, ta guero estaldu edo tapetan de zulo dana.

Baña beguira lurlantzall edo necazariyac, ez eguizue iñoz bere patatia ipiñi abonoaren ganian, bada erreta ustelduco dauz, guztiz indartzua dalaco, ezpada esan jatzuen leguez, abonua estaldu edo tapau eguizue lurraz ondo, ta lurraren ganian ipiñi eguizue lurzagar edo patata asitacua, ta guero berau estaldu eguizue lurraz.

Lurzagar edo patatiaren areriyoric gogorrena da gorreña edo *leronospera infestans*, orriya zulu ta landaria anabasituten dabena. Areriyo onen contrato osagueric onenac dira; 1.º, lurpillo bat eguin landaraganian. 2.º ez erein beinbere lur urtzuan, ondo liortu bagaric. 3.º, autu asitaraco gach baco patatac. 4.º erein mietz, ta aizealdetic eguin ubideac. 5.º, sulfatau. Iru bidar sulfatetan da baguillian asita, lenengo sulfato aldiya eguin da, bigarrena eingo da laugarren astian, ta irugarrena aindic laugarren astian. Patatia atara biar da lurretic ainbat beranduen, ta atara baño zaspi egun lenago, ebagui biardira bere erramac, ta erre soluan bertan, ta guisa onetan galtzen dira, gorreña zabaldu daben pristiyac.

Arbiya edo nabua

Gutziz dator ondo gariyaren ondoren arbi edo nabua ereintia, onec beraganduco debezalaco, gariyac beragandu barie, lurrian ichi dabezan ongariyac; ta zerzelada au da baliyo andicua, arbiyac oneratuco dabezalaco, ecachac udagoyeniann alperrie galduco leuquezan ta udan ain oneratzuae diran lurreco ongariyac.

Gañera, arbiyac guztiz guichi aricatu ta necatuten dau lurra, au da, coipe guichi quentzen deutza lurrari, alan bere ondo sastu biar da solua, bada landara au dana leguez ganadu jatecoraco, zeinbat ta obetuago sastuten dan lurra, ainbat ta obetuago janarituco da ganadua, ta onen simaurra bota daite nian lurrera, ascoz apatzago gueratuco da lurra, coipe asco artu dabelaco.

Arbi muetac asco dira, baña esagunenac idun berdía ta idun morantzã.

Gariya ebagui ta ondoren lurra landuten da, ta erein ubidean arbiya edo nabua. Solua bada berraun ta irurogueta bi estatueoa, biar da abonau lurra ogueta bi kilo *nitrate* ta berrogueta bost kilo *superfosfatogaz*. Solua bada, bosteun ta ogueta bost estatucua, berrogueta lau kilo *nitrate*, ta berrogueta amar kilo *superfosfatogaz*. Ara zelan erein biar dan. Eguiten dira ubideac, ta zarratucho eguiten dira suluae. Sulora botaten da lenengo cortuco satza, onen

ganera collara bete *nitrate*, ta beste collara bete *superfosfato*; lurraz tapetan da abono guztiya, ta onen ganera arbi asiya, ta onen ganera barrero lurra.

Aragui orico arbiyac *Taborita* leguez, astiruago datoz, baña alimentu gueyago ta iraupen obacuac dira.

Erne daitenian arbiya, ardura andi bat euqui biar dau lurantzalleac, landara guztiai azten galazoten deutzen bedar charrac quendu, zarri jorratu ta landarac bacanduteco.

Arbiyaren areriyo gogorra da *galderna* eusqueraz ta *pulgoia* erderaz derichona, ta gach onetatic alden-duteco arbiya, biar da zarratucho erein, ta nastau asiya mostaza garaun batzucaz, ta zabaldu nabo orriyetan care autz pizcat inuntza eguin daben goiz baten. Barriz arbi orriyac aguertu daitezanian autz zuridun bategaz zetacatuta, biar da orduan sulfatau, guisa onetan: tiñaco andi bat betetan da urez, uretan nastetan da care bizi pizcat ta sulfato cobre, ta guero irran busti arbi orri guztiaic ichus qui zar bategaz, mastayac leguez.

Sarbagorri edo erremolachia

Sarbagorri edo erremolachia ereinten da, eheco aziendae zer jan euqui daguiyen neguan, ta azucaria eguiteco. Gue emen bacar-bacarric escuztatu edo zerbait esango dogu, eheco aziendiari jaten emoteco ortu bedarrac leguez.

Sarbagorriya da landara bat, lur apatz ta ondo sastuico lurra biar dabena. Aututen danian solua, sarbagorri edo erremolachia ereinteco, sastu biar da ondo neguaren asiyeran, ta ascozaz obetuago urriyaren asquenerunz. Satz naicua ezpadago sasteguiyan oneratu edo aprobechau leiquez bedar ta ortu bedar apur guztiyac, lurpetuten dirala satzaz nastian.

Udabarrico lenengo egualdi onetan landuten da solua, ta epailletic ta jorraillaren asquenerunz erein biar da. Goizetic ereintia, obago da, berandu ereintia baño; bada goizetic ereinten dana, iñunz otzac galtzeco arrizcua badauque bere, barriro erein leiteque; baña berandu ereinten dana, dago aixe erriac edo sicutiac galtzeco zoriyan, ta guero ez dago eraric, barriro ereinteco.

Sarbagorri edo erremolachia ereinteco asiric onena da *Gigante Vauriac* derichona, edo erdi azucare duna.

Sarbagorri edo erremolachiac biar daben incari edo abonua da, uda goyenian sastu ondo, cortaco

satzaz; barriz uda barriyan solua bada berraun ta irurogueta bi estatucoa, berrogei kilo *superfosfato*. Solua bada bosteun ta ogueta bost estatucoa, laroguei kilo *superfosfato*, guisa onetan; idiguiten dira ubideac, eguiten dira suluac oñic oñera, botaten dira sulora collaracada bi *superfosfato*, tapetan da lurraz abonua, onen ganera botaten da asiya, ta onen ganera barrero lurra. Landara larregui sortu badira bacanduten dira, indartzuenac edo marduenac izten dirala, ta orduan bere botatén jaque *superfosfato* pizcat irran. Batzen da uda goyenian ta gordetan da garayan.

Irucocha

Irucoch mueta asco dagoz, allorbia betarroca, secula-bedarra, pagocha edo franzez bedar gorriya, etc.; baña orretatic egoquiyena echecho aziendiaren jatecoraco, goiztar ta ugariya ta dempora guichi lurrian eguiten dabelaco, da pagoch edo franzez bedarra.

Pagocha beste irucoch mueta guztiyac baño jateco ariñagua da, alan bere, bera da lur Lanzallentzat egoquiyena, neguan echecho azienden jatecoraco garayan edo zabayan gorde ta guero izten dabelaco artua edo lurzagarra ereinten, ta oren ondoren sarbagorri ta arbiya.

Pagochac gura dau lur berua ta erain aldichu bat ereinteco, bada aide-aidian dator, ezerbere necatu bagaric lurra. Satz guichi biar dau, barriz emoten jacana, obariteten dau ondo. Satz guri bat aide-aidian neguan, ta onen ganera, andic laster esarten jaca berroquei kilo *superfosfato*, ta berroquei kilo *cal-nita*, solua bada bosteun ta ogueta bost estatucua.

Demporaz ereinten bada, ez dau beste arduraric biar bedar charrac atara, ta garbi garbi euquitia baño.

Auzna-bedarra edo achicoriya

Oraindie urte asco ez dala, bacarric Flandesen, Belgicaco erreñuan, Alemaniyaco lecu batzubetan, ta zerbait Franciyan ta Olandan, artzen zan auznar bedar edo achicoriya. Milla zortireun ta larogueta amairu garren urtian, igon eban coste ereguira bere baliyuac, ta ordutixec Dinamarcac, Sueziac ta Rusiyac emon eutzen aurrerapide andiya, gaurco egunian Euscalerriyan bere esagututen dan auznar bedar edo achicoriyari.

Sustrai berdiaren baliyua dago, bere emoierari edo sustrai sicuari, mercatuan emoten jacan baliyuan.

Supituan daucaz gora bere andiyac auznar bedarraren baliyuac, ta auda beti beguiyen aurrian lur lantzallean euqui biar daben zerzeladia. Guizon aituaac diñue, sustrai berde onen eun kiloren baliyua darian, iru pesetatic gora, obari polita ichico dabela.

Auznar bedarrac gura dau lur asco edo sacona, lurpian bere sustraya nazai-nazai mardotu dedin, ta lurric onenac dira bustin lurra, ta ez asco charrago obago ezpada ota lurra. Lur bigun ta are lur ariñian artzen da, baña ascozaz urriyago.

Auzna bederra ereinteco autu dan solua, ondo sastu biar da neguaren asiyeran, ta ascozaz obetua-go sasten bada urriyaren asquenetara. Satz naicua ezpadago, oneratu edo aprobechau leitequez ortu bedar guztiyac ta eurac, satzaz nastian, lurpetu ondo.

Udabarrico lenengo egualdi onetan landuten da solua, ta epailletic jorraillaren asqueneruntz erein bere bai aziya. Oba da goizetic ereintia, berandu baño; bada goizetic ereinten dana; iñunz otzac galtzeco arrizcua badauque bere, barriro erein leitequez, barriz berandu erein ezquero, aixe erriac edo sicatiac galtzeco zoriyan dagoz, ta ez dago guero barriro ereinteco eraric.

Ondo ongarritu biar da auzna bedarra, orregaitic, erruqui бага бота biar jaca landariari satza ta aberien chixa. Gañera, solua bada, berraun ta irurogueta bi estatucua biar dauz oguei kilo *nitratu*, ogueta amar kilo *superfosfato* ta amar kilo *cloruro potasa*. Solua bada bosteun ta ogueta bost estatucua, biar dauz orduan berrogueti kilo *nitratu*, irurogueti kilo *superfosfato* ta oguei kilo *cloruro potasa*. Abono quimico guzti onec nastau biar dira, solura бота baño lenago.

Auznar bedarra ereinteco zazoiric onena da jorrailla ta orrilla erdiraño. Ara zelan erein biar dan.

Eguiten dira ubideac, bitarte dabela amabost edo oguei zentimetro. Guero eguiten dira suluae oguei zentimetrutic oguei zentimetrora. Lenengo botaten da sulora cortaco satza, onen ganera abono quimicua, mueta guztiyac nastauta, collara andi bat ondo beteta, onen ganera lurra ta guero auznar aziya edo achicore aziya, ta onen ganera bere, lurra osterac: baña beguira, lurlantzallac, ez eguizue bein bere satzaren edo abonuaren gañera бота aziric, abonuaren indarrac erre ez daguiyan, ezpada alan satza zein da abonua estaldu edo tapau eguizue lurraz, ta lurraren ganian ipini eguizue aziya, guero lur azpico abonuaren berotasunac erne daguiyan aziya.

Erne daitenian auzna bedarra edo achicoriya, ar-
dura andiyaz, quendu eguizubez, landariari azten,
galazoten deutzen bedar char guztiyac, zarri-zarri
jorratu eguizube ta guero bacandu bere bai.

Auznar buruac batu baño lenego amabost egun,
quentzen jaquez orriyac, ta iralletic zemendira, ata-
raten dira buruac.

Auznar bedarraren aziya

Azi mueta bi dira esagunenae, orri quiscortuac ta erdizcatuac, ta onetaricuac dira anguilla buru edo Flandezcuac ta Brumwik auznar bedarrac, baña onec berestuten dira euren idu lisuagaitic. Bigarren muetacuac dira orri zabaldun ta ozuac Magdeburg-ua leguez, ta soloco muna, sasi arte ta erreca onduetan sortuten diran auznar bedarrac.

Laza edo engañu asco darue larlantzallac aziyaz mercatuan, ta alan onduen-onduen da, noberac, noberaren landaracaz, biar daben aziya batutia, ta onetaraco ara zer eguin biar dan.

Urriyan achicori buruac batzeco zazoian autu auznar bururic eder ta galantenac, ta guero echian leyac ucutuco ez deutzan lecuan gorde, edo are artian edo lurpian, baña ondo tapauta, erne ez dedin; ta epallaren edo martiyaren asquenetarunz, lur apatz baten landaratuten dira danac, berrogueta bost edo irurogueta amabost zentimetro bitarte dirala bata bestiagandic; ta landariari sortzen jacazanian quirten edo talluac, ebaguiten jacaz punta guztiyac, guero danac aldameneco guztiyacaz era batera eldu ta emon daguiyen azi loria.

Aziyau ondo zaindu ezquero, zaspi edo zortzi urteraco baliyo dau; ta ereinteco ez da autu biar gaztieguiya, ezpada erdicua.

Landaria azten danian aziya emoten, jorratu biar

da, landeratic amabost zentimetro bitartian; ondo zaindu aziteguiya, bete ez dedin bedar charrez, ein aleguiña garbi euquiteco ubidea, arec eta landariac bete artian, ta garagarillan asquenerunz ataraten azidum buruac.



ORTU-ARIYA

Baba baltza

Baba baltzac da Igitutic etorriya da. Garaun bacoctic sortzen dira iru edo lau landara. *Giant Longpod* Suttonena, da dudatzaca baba lecaric onena; bere lecac dira sucen ta andiyac, bada leca bacoctic daucaz ogueta amabi centimetro luzeran, ta garau-nez bete betiac dira. Ereinten da urriyan; ta ereinten bada egoi aldian, ta eguzqui beguitan emongo dau frutua orrillian edo leenago.

Babataraco lurric onenac dira bustin ta ota lurrac, ta onetatic erreca ondociuac. Ereinteco baba aziric onenac dira, ez begui aldetic, ezpada beste aldetic, edo beste puntatic, saconchu bat edo pocholachu bat dauca babia; bada baba onei deitzen deitze arabarrac emiac, ta onixec dira erein biar diranac.

Biar diran abono quimiciuac dira, superfosfatua ta cloruro potaza, abono biyac nastauta.

Landuten da lurra urriyaren lenengüetan; eguiten dira ubideac larogueta bost centimetro bitarteciuc, eguiten dira suluac sei edo zaspi centimetrocuac, sulo batetic bestera amar edo amabi centimetro dala; lenengo botaten da collara bete abono quimico, lur puzca bategaz tapetan da abono au, ta onen ganian, ipinten dira garaun bi edo iru, ta zarratzen da sulo guztiya. Baba baltzac ez dau biar cortaco satzie, abono quimicua baño, superfosfatua ta cloruro potaza nastauta len diñodan leguez.

Jorratu biar da, landariae bost edo sei orri daucazanian, ta bacandu bere bai orduanche. Barriro jorratuco da epaillian, loratu daitenian, ta ebagui bere bai landariaren puntac edo guiyac, landariaren quirtena loritu ta indartu dedin, ta leca gueyacomon daguiyan, ta berbertatic lecatu ta elduco da, guichienez amabost egun lenago.

Baba baltzaren areriyo gogorra da *galderna* edo *pulgoia*, ta au quentzen da or emen, or emen ipiniyaz landarapietan liramen edo algodoi apur bat *zanina* derichon ingredientiaz bustita; *zanina* saltzen da botican ta drogueriyetan.

Heste areriyo gogor bat da *beldarra*, ta au uxa-tuten dau insutz edo sauco loriac.

Osagueiric eraguillena da, bedar charrac quendu ta solua garbi-garbi euquitia.

Babia edo Indibabia

Baba asco ta ona artzeco lurric onena da are lurra; care ta bustin lurrae ez dira egoquiyenac.

Euscal-erriyan erein biar diran babae dira *errinde babia*, *napar babia*, *bi-babia* edo birritan artzendana, ta potage baba zuriya; onixec diralaco emen onduen eldu ta obariric gueyen orain arte izten dabienac. Erriñoi babia edo gastelacua, gastelan obari asco izten dabena, ez da ondo eltzen euscal-erriyan. Egoi aldeco ortu ariya ez da ondo emen eltzen, ta alan ez da emen bein bere erein biar. Onduen emen eldu ta obariric onenac emoten dauz ipar aldeco ortu ariyac, ta zeinbat ta urriñagocuae ipar aldetic, obetuago. Gastelaco ortu ariya baño, Franziyacua obago da Euscal erriyan, ta Franziyacua baño obagoa, Holanda edo Rusiyacua.

Babia ereingo dan solua bada area batecua, au da, ogueta sei estatucua, lantzen da lenengo, ta babia ereingo dan baño ama bost egun leenago, nastetan dira iru kilo *superfosfato* zortzi kilo *cainitagaz*, ta zabalitzen da irran soluan. Guero eiten dira ubideac irurogueta amar centimetro bitarte dala bata bestagandic; guero sulochuae ez saconac, sulo batetic bestera dala iruroguei centimetro; sulora botaten da guero satz sicua, escubetan auztuta, satza tapetan da autz pizcategaz, onen ganian ipinten dira lau edo bost baba garaun, ta onec bere tapetan dira lurraz.

Satz buztia guztiz da charra; landariac euquico dau orri asco, baña leca guichi. Ereingo dan babia sicutan erein biar da, emongo badau baba egozcorra.

Erne babia ta andie illa bete barru, jorratu ta bete biar da landara eperdiya lurrez. Da guztiz ondo ta lurlantzalle guztiyac eguin biar dabierna, artotzan babia ereintia, babiac calteren apurric eguiten ez deutzalaco artuai, sustrai guichi daucalaco.

Baba landariac metro bi leguez igon daguiyanian, ebaten jacaz puntac edo guiyac, gogortu dedin landaria, lar igon da, indargabetu ez dedin: Onetan landaria gogortuta, leca gueyago emon ta ariñago elduco da.

Sicutan jateco, artu gura bada babia, ez jacaz berdetan lecarie quendu biar, ez azpitie ez erditie, ebaguiyacaz landaria macaldu ta indargabetuten dalaco, ta laboriaren erdirie bere emongo ez dabelaco.

Ereinten da jorraillaren erditie aurrera, ta batu babia garagar edo agostuan.

Idarra

Artzen da idarra lur mueta guztietan, baña egoquiya dau, ganetic are lur ta betic bustin lurra dagan solua.

Idarrac ez dau biar satzie, espada surtaco autza, ta laborerie onena artzen da, lursagarraren edo patata oztian ereinten dan soluan.

Azi mueta bi dagoz, goiztarra ta beranducoa. Izozac edo leyac ta edurrac ez deutza ainbeste calte eguizen azi goiztarrari, zein da beranducuari.

Zezeillian lur ariñetan, ta epaillaren amabostetic jorraillaren erdirarte ereinten diran idarrac dira ugariyenac. Baña onetaraco biar da euqui azi goiztarra.

Ereinten badira zezeillian era batera azi goiztarra ta beranducoa; azi goiztarrac emongo dau bere frutua jorraillian, barriz beranducuae orrillian asquenetaruntz edo baguillaren lenengüetan.

Agorrillian edo agostoan gura bada euqui idarra erein biar da azi beranducoa jorraillaren asquenaruntz.

Gura bada euqui idarra irailian, biar da erein azi beranducoa orrillaren asquenetaruntz.

Idar asco artzeco biar dau lecu aizetza ta arguitzua, au da, euzqui beguitacua.

Ereinteco, biar dira eguin soluan, lenengo ubide bi ogueta amar centimetro bitarte dabela; guero izten

da cana beteco bitarte bat, ta emen ereinten da urraza edo lechuguia, sarbac, arbi gorriya edo zanahoriya, errefaua edo rabanua, onetatic zein gura, barriro bere eiten dira ubide bi ogueta amar centimetro bitarte dala, ta guero cana beteco bitarte bat etc. guisa onetan.

30	90 á 100	30	90 á 100	30
centímetros	Cana bat	centimetro	Cana bat	centimetro
de espacio	bitarte	bitarte	bitarte	bitarte

Ubidietan eingo dira bost centimetroco suluac amar edo amabost centimetro bitarte dala. Sulora botaten da collara bete surtaco autza edo potaza, tapetan da abono-au lurraz, ta onen ganera lau edo bost idar garaun ta onen ganera lurra guero, edo tapau ondo.

Landaria erne ta eldu daitenian bost edo sei centimetrora, betetan jaca lurraz eperdiya: biar au ein biar da egualdi onaz; ta ber bertatic sartu egurrac, euretan idantzi edo incau dedin landaria.

Landariari, bost edo sei lecutan, urten dayonian loriae, landaria sendotu ta mardotu dedin, ebaten jacaz puntac edo guiyac.

Idarra artu dan soluan, lau edo bost urte igaro arte, ez da barriro erein biar idarric, ta au ein biar da ortu ari guztiyacaz, baba baltzaz, indiya babiaz, asacaz, urrazar edo lechugiaz, ortu bedar mueta guztiyacaz; urte guztietan aldatu biar da laboria.

Aza

Ortu aririe lenen ta aurrenengüena lur zagar edo patatia European aguertu artian, izan zan azia; baña aguertu zan, gaurco egunian oguiya leguez premiña andicua dan lur zagarra edo patatia, ta orra berbertatic jarri zan ortu ariyetan lenengo mallan, guera-tzen zale azia bigarrenian.

Azaric onena Bizcayan da *bacalan beranducua* derichona. Onen aziya ereinten da agorril ta iraillian, ta landaratu daitenian, birlandatu urriyan asquene-tarunz edo zemendiyan, ta eltzen da jorraillian edo orrillian. Eiten dira iru edo lau quiloco azaburu galantac. Bere loria da zuriya, ta bere eperdi quirtena sei edo zaspi centimetrocoa: landarac ipinten dira mietz, berrogueta bost centimetro bitarte dala alde guztietara. Aza au da guztiz samurra ta gozua, ta nequez loratuten dana.

Beste aza mueta bat guztiz ona Bizcayan da *Nantes lasterra* derichona. Ereinten da epaillian, ta birlan-datu bere landarac orrillian, ta eldu iraillian.

Beste aza bat oneneticua de *flamenca* derichona: esan lei aza onegaitic, ez daucala quirtenic, da beren-ducua, ta otzac bere calteric eguiten ez deutzena.

Onen aziya ereinten da orrillian ta baguillian, ta birlandatu iraillian edo urriyan, ta eldu abenduan edo urteillian.

Beste aza mueta bat da *naparra* derichona: onen

aziya ereinten de agorrillian, birlandatu zemendiy-
yan edo abenduan, ta eldu jorraillian: da samurra ta
nequez loratuten dana.

Beste aza mueta bat da *erfut* derichona, obariric-
gueyen emoten dabena, edozeinbere demporetan ta
lecutan artzen dana.

Aziya

Aziteguiyan aziya erein baño lenago, ondo sastu biar da sartz zarraz edo ondo ustelduicuagaz. Erein biar da, ez zarratu, gaur oi da lez, ezpada mietzago; ta araco landariae daucazanian lau orri, tiraca baric, atzamarraz sustraya lur ta guzti atara biar dira, ta ipini beste minteguichu edo azitegui baten oguei centimetro bitarte alde guztietara dabela, ta araco puzca bat mardotu daitezanian birlandatuten dira; baña ara zelan: azataraco solua bada ogueta sei estatucua, edo area batecua, ondo ta zacon achurtu biar da neguan, azalchu udan. Nastetan dira quilo bi superfosfato ta quilo bat cloruro potaza, ta botaten dira irran edo zabalduten dira, ta andie amabost egun barru eiten dira suluae berrogueta bost centimetro bitarte dirala bata bestiagandic, ta landariae badauca sustrayan enor edo tronboiric, cuchillochuATEGAZ quentzen dira, bestelan enor edo tronboi orretan sortzen dira aza orriyae sulatzen dabezan beldarrae edo cocuac. Landaria birlandatuta guero, ongarritu biar da surtaco autzaz, quedarriaz, ta caleetaco zazcariaz, edo quilo bat nitrato sosa lurraz, azaburu ederraguac, eingo dira. Birlandatuco dan landariae ez dau izan biar zarrac, ez sei baño orri gueyagocuac, espada mardo ta guri-guriyae.

Aziaren areriyoric gogorrena da galderna edo pulgoia, caracolac, ta batez bere beldarra edo orri artian azten dan coco bat.

Barac galtzen dira autz zezeia or emen botiagaz,
ta bardin zai pillochuac or emen ipiniyaz.

Beldarrae edo zorriyae dauca bere abiya orriyan
be aldetic, ta aguertzen danian, ein biar da aleguina
onec apurtzeco; baita bere orri sulatuac quendu.

Coliflora

Milango colifloretatic onena da *De ulm* derichona. Da coliflor guztietatic chiquiyena, goiztarrena ta onena, ta eper saltzaraco autuena. Artu lei edozein-bere lecutan, alan ipar aldian zein egüerdi aldian, alan eguzquiyaren urteyeran, zein zarrerán.

Ereinten da jorrail edo orrillian.

De Pontua derichona, da coliflor buru gogor, zabal, zacon ta beranducua, otzac calteric eguiten ez deutzana, ta Bizcairaco autuena.

Ereinten de orrillian edo baguillian, ta birlan-datuten danian, landara batetic bestera, biar dau euqui irurogueta amar centimetro bitarte alde guztietara.

Orri andico coliflora. Mueta au da orri andi ta quiscurtua daucana, guztiz samurra.

Aziteguico ta soloco lan ta zereguin guztiyac dira azataracuac leguez.

Urraza edo lechuguia

Dagoz urraz edo lechuga mueta bi, bata negucua ta bigarrena udacua. Negucua erein biar da lur ariñetan, ta udacua zerbait astunetan. Urraz edo lechuguia onduten da abono quimicuacaz.

Urraz edo lechuguia**ac** biar dabezan abono quimicuac dira: Superfosfatua lau quilo; Cloruro potasa quilo bat; Sulfato amoniaco quilo bat; ta nitrato sosa quilolauren, area baten, au da, ogueta sei estatuco solo baten.

Superfosfatua ta cloruro potasa esarten dira uraz landarac birlandatu baño egun batzue lenago; sulfato amoniaco birlanduten diranian landarac, ta nitrato sosa aldi bitan; lenengua birlandu landarac ta amabost egun barru, ta bigarren aldiz, andie oguei egun barru.

Azia ta urrazac ura ta euzkiyac azten dauz; orregaitie zarri erregau biar dira.

Piparra

Landarau da Ameri juetatic ecarriya. Dagoz pipar mueta asco. Esagunenac dira: *Pipar loriyac*. Pipar loriric eder, mamintzu ta gozuenac dira Bizcaicua ta Erriojacuac; ta autu actuac latetan edo *conserban* ipinteco. Landara bacoachac emoten dauz sei pipar garaun.

Bei adarraren antzeo piparra. Pipar au da luzia, naicua loriya ta mamin onecua. Aurretiaz quentzen jaccanian landaraco urtzuloco lenengo piparra, guero landara bacoachac emoten dauz amabos ogei pipar garaun.

Auntzen adarraren antzecoa. Pipar au da luzia, biyorchua ta zimur ascocua, ta pipar garaun asco emoten dabena. Pipar mueta au da, Erriojan esqueguiten dabienna, neguan pipar autza beraz eguiteco.

Pipar min luzia ta chiquiya. Pipar muetau jaten da gordiñic alan berderic, zein da gorrituta, ta irauten dau luzero.

Lucaincaguil edo pipar chorizerua. Pipar au da tinta gerriric gueyen ta gozuena emoten babena, ta autu autucua lucaincac eguiteco. Bizcaicua ta dira onenac, batez bere Guernica aldecuac.

Azitaraco autu biar dira pipar bururic eder ta galantenac, ta gorde lecu lior ta aize bacuan, berez usteldu edo sicatu arte, ta bein usteldu edo sicatu diranian, batzen da barruan dagoan azi guztiya. Azi-

ya-au obada erein batu da bigarren urtian, lenenguan baño. Irugarren urteraco asco macalduten da.

Eguzqui beguitaco aziteguiyan botaten da ugari cortaco satza, obeto pecoratzá escuetan auztuta, ta zortzi egunian egun birie bein erreguetan da.

Aziteguico arazuan zabizala, euqui eguizu pipar aziya iru egunian beratzen, ta ur ganian guerätzen diran azigaraunac, mamin bacuac leguez, ez dira gauza ereinteco, ta alan bota eguizuz alperrac leguez; baña ur azpiyan dagozanac dira mamintzuac ta onenac ereinteco, ta alan batu eguizuz zorquichu baten, ta ipini eguizu zorquichu au, bere azita guzti, azitoquiyan pecorotz barruan. Egunian birritan, goizian ta illuntzi inguruan, atara eguizu, ta euquirie ur epeletan pare bat minututan, barriro ipini eguizu lengo lecuan. Biar au eguin biar da zortzi egunian. Zereguin guzti onec ein biar dira urteilla edo zezeillan orduanche dalaco aziya-au ereinteco demporia.

Zortzi egun onec igaro daitezanian, ereinten da aziya. Araco lau orrico landarachuac eguin daitezanian, ordu erdi lenago erregauta, ataraten dira, lur da guzti zuztraya dabiela, ta ipinten dira, ez begui euzqitan ordurarte leguez, ezpada aldemenian euquico dan aziteguiyan, ta landarachu baco cha ipinten da oguei bat centimetro bitarte dabela bestiacgandic. Aziya erein da guero, euqui biar da arduria, zarri-chu bedar charrac quendu, ta ur puzcategaz landarac bustiteco.

Pipar landarac birlandatu biar dira baguillaren azquenetara, ta onetaraco autu dau solua, ondo achurtu ta cortaco saszaz sastu biar da, ta abonau *superfosfatuz* ta *cloruro potazaz*. Solua bada ogueta sei estatucua, edo area batecua, biar dauz zaspí quilo

superfosfato ta quilo bi *cloruro*; abono bi onec ondo nastauta irran zabaltzen dira soluan. Solua bada be-rraun ta irurogueta bi estatucua, au da, amar area-cua, irurogueta amar quilo *superfosfato* ta oguei quilo *cloraro* biar dira nastau ondo, ta bota irran soluan; ta andie amabost edo oguei egun barru eguin ubi-deac ta suluac ta birlandatu landarac berroguí centi-metro bata bestiagandie dala. Landaria sustraitu danian, bota biar jaque *nitrate de sosa*, quilo bat area bateco soluari; barriz amar quilo amar areacuari. Birlandatzean eiten da baguillaren asquenetan.

Piparrae biar dau bere demporan jorratu zarri-zarri, quendu bedar charrae, ta udaco bero andiye-tan, arrazalde beranduan, erregau.

Pipar landaria erein ta illabetegarrengo emoten dabezan pipar garaun gaste samurrae, quentzen ja-caz, ta jaten dira prijiduta; guztiz dira gozuac, ta ao zabai guztiyen guztocua; baña batez bere quendu biar dira urculocuac, landaria obetuago mardotu, ta pipar garaun gueyago eguin daguiyozan.

Lenengo illian, zeinbat ta pipar garaun barri quentzen jacazan landariari, ainbat ta pipar garaun gueyago emongo dauz guero landariae. Illau igaro ezquero, ichi biar jaquez eltzen beste emparauari.

Piparraren areriyuac dira sagu ta arratoia, cara-colac, barac ta batez bere lurchacurra.

Sagu ta arratoiae geltzeco, botican saltzen da *insecticida* derichon autz batzue. Autz au zabaltzen da arluan puzcachu bat, ta laster sagu ta arratoiae il edo iguesi eingo dabe. Caracolac ta barac galtzeco ez dago besterie, autz zeiaz ein pillochuac, beraz naz-taurie gueratu daitezcan, ibili ezinda; barriz icusi daitenian pipar landaria, quirtenetic ebagueta, egun

atan edo une atan aratu biar da landariaren sustra-
ya, edo ondocuenac, ta topau daitenian, il escuco
achurchuagaz, bestelan onec arloan eingo daben tris-
cantzia, izango da andiya.

Tomatia

Ortu ariyau Ameriketatic etorriya da. Tomate mueta asco dagoz; baña lenenac, edo Españan artzen diranac onixec: *arrontera*, *biribilla*, *madariyaren irudicua*, *ocaranaren irudicua ta andigachac*.

Arrontera da biribilla ta zapala alde biyetatic auxe da Bizcayan gueyen artzen dana.

Biribilla. Mueta au ez da gach esagututen, bada bere landaria ez da luzia, bere frutua iya biribilla, laua, chiquiya ta iraupen andicua edo nequez usteltzen dana.

Madariyen irudicua, alde batetic meardua ta bestetic zabalagua ta loriyagua dalaco; luzeran lau centimetro inguru daucaz, ta bere mamiña gusto onecua ta iraupen andicua. Onen antzeracua da *ocaran irudicua*.

Andigacha da garaun andicua, esan lei tomate garaun pillo bat alcarri irantzita dagozala; da ugariga, baña iraupen guichicua.

Tomate aziya ereinten da irailian, ta ereinten da guisa bitan, au da, aldatz beran ta lauan.

Aziteguiyac aldatz beran biar dau equi metroco ogueta bost centimetroco beruneza edo aldatz beria, ta metro bat ta ogueta amar centimetro zabaleran.

Aziteguiyan botabiar da ugari satz ustela, ta eguin guero ubideac amabost centimetro bata bestiagandic amabost centimetro bitarte erain aziya suluetan,

ta ataraten dira landarac euren ayen ta guzti zeze-llian, ill onetan birlanduteco soluan.

Ondo achartu ta saztu biar da solua cortaco satzar, baita bere abono quimicuz. Biar dabezan abono quimicuz dira *superfosfatuac. cloruro potasa ta nitrato sosa*. Solua bada area batecua, au da; ogueta sei estatucua, biar dauz zaspí quilo *superfosfato*, iru quilo cloruro ta quilo bat *nitrato*. Solua bada amar areacua, au da, berraun ta irurogueta bi estatucua, iruroguei quilo *superfosfato*, ogueta amar quilo *cloruro* ta amar quilo *nitrato*. Cortaco satza, *superfosfatu* ta *cloruro* botaten dira solora irran, landarac birlandutu baño amabost edo oguei egun lenago. *Nitratu* landarac sustraya artu dayenian.

Solua ondo sastu ta abonauta, eiten dira ubideac cana ta erdi bitarte dala bata bestiagandic. Bitarte au biar da landara guztia egon dedin egusqui beguitan, ta landarac biar dira ipini larogueti centimetro bata bestiagandic.

Ereinteco bigarren guisa da azitegui lauetan. Azitegui onec biar dau satz erdi uste dua, ta ortu bedar puzcat bero apurchu bat emoteco, ta nozian bein ur puzcategaz erregau. Landerachua eldu daitenian amabost centimetrora, ataraten da tiraca, ta birlanduten da beste azitegui baten, baño ondo sastuicuan, ta emetic ez dira atara biar loratu artian. Bigarren aziteguira igaroten danian landaria, euqui biar da arduria, arec eta ondo sastraya artuarte landariae, goizeco amarretatic arrazaldeco ordubiyac arte tapetaco aziteguiya, eguzquiyac macaldu ez daguiyan landara ipini barriya.

Landara onec birlagduten dira soluan epaill edo orraillian.


Birländuta biar dira landarac soluan eguzqui beguitan; ta ozteco aldian ein biar jaca egurracaz ta laztuaz cana bete inguruco ormachua, bendabalac ta ipar aiziae galdu ez daguiyan Ormachu onetan ipini biar dira iru palo edo iru alambra eurretan catigatuteco landariaren ayenac. Lenengoco palua ipinten da lurretic oguei centimetro gorun%.

Zeinbat ayen ichi biar jacazan landariari, ez dira erechi batecuac lurlanzalla aituac. Batzue diñue, ichi biar jacala bat, ta quendu edo ebagui beste guztiyac; beste batzue diñue bi, ta beste batzue bost.

Neure beguiyacaz icusi dodaz landara ederrac, tomate garaun beteta ayen bategaz, ta baita bere ayen bigaz; barriz lau ta bostegaz landera macalac; alan bada, neure ustez, ez dabe euqui biar bitic gora.

Landariac biar dau laroguei centimetro bitarte beste landariagandic. Landariaren ayena edo ayenac eldu daitezanian lenengo egurrera lotzen dira; bardin eltzen diranian bigarrenera; barriz eltzen diranian irugarrenera, ez bacarric lotu, basta bere quendu biar jacaz edo ebagui biar jacaz puntae ayen guztiai, bi badaucaz biyari, bacarra bada, berari. Esan deutzubet, neuri erechi argaliac, tomate landariac ez dabeta euqui biar ayen bat edo bi baño, ta alan urten alian ayen gueyago, ebagui eguizuez, edo quendu eguizuez, landaria obeto sendatu ta frutu gueyaco emongo deutzubelaco.

Guisa onetan erein aziya, ta birländuten badira landarac, orrillian artuco dozue ugari tomatia aldatz beran erein dan aziyaz, barriz agorrillian azitegui lauan erein danaz.



Quipulia

Quipula muetarie esagunenac dira *morantza* edo *Españatarra*; *zuriya* edo *portugueztarra*; *goiztarra* edo *ortucua*; *luze gorri ta luce zuriya*.

Morantza edo *Españatarra*, da muetarie onena ta maiteena, gozua ta negu guztiyan irauten dabena.

Zuriya edo *Portugueztarra* da españatarra baño gozuagua, ta batzuetan bera bestecua andiyeran. Mueta bi onec dira enda batecuac.

Goiztarra edo *ortucua* da chiquiya ta zuriya, nainya gozo, ta beste mueta guztiyac baño illa bete goizago datorrena.

Quipula luce gorriya ta zuriya bereztuten dira mueta bi onec bestiaegandic euren iraupen andiyagaitic.

Quipuliac biar dau aize asco, ta euzqui asco, ta alan ez dira bein bere erein biar ez arbola-pietan ez querizpetan, ez lur urtzuetan. Quipuliari ez jaca bota biar cortaco satzie, ezpada quipulia erein biar da, aurrerago ondo sastuico laboria artu zan lecuan.

Quipulia erein biar da irail ta urriyan guisa onetan landarac neguraco gogortzen diralaco edolabere erein lei zezeil, ipail, jorrail ta orrilian quipula buru chiqui ta samurrac ensaladetaraco euquiteco.

Aziya ereinten da irran edo ubidean amabost centimetrotic sulochuac eguin ta euretara aziya botiaz; ta araco erne daitezanian, botaten jaque surtaco

autza, quedarria, caletaco zascaria, edo zaldi, mando ta ardiyen pécoratza escubetan auztuta, edo superfosfato puzcacho bat; ta araco puzca bat aguertzen diranian, bacanduten dira, landarachu bacochari ipini arte amabost centimetroco bitartechu bata bestiagandic.

Zezeil edo epaillian achurtuco da quipulia birtan dutuco dan solua, ta ezarriric oni ogueta sei estatuco solua bada, bost quilo *superfosfato*, quilo bi *nitrate* ta quilo bat *cloruro*, ta eguinic suluac oguei edo ogueta bost centimetro bitarte dala bata bestiagandic, birlandututen dira euretan azal-azaletic, naicua dala centimetro bi ta erdi lurrez tapetia. Jorraillian jorratu ta garbituco da solua, ta au eguin biar da zarrichu, solua garbi garbi euquiteco, ta araco sumetan darian landaria duala lazter loratutera, puntatic ebaguitenda, edo zapalduten da eperdiyan edo macurtuten da ayena.


Beracatza

Beracatza artu lei lecu guztietan, alanbere gura dau lecu epela ta izotz edo lei beranducoric eiten ez daben paragia; gura dau baita bere lur arin ta liorra; edolabere ondo etortenda bustitasun guichico buztin lurrian.

Erein baño lenago ezarri biar jaca *superfosfato* puzca bat, beste puzcat *nitrate* ta *cloruro* sosa, baño buztiz guichi. Satz bustiya da bere areriyo gogorra.

Ereinten da urriyan ta zemendiyan, ta baita bere erein lei abenduan ta urteillan, baño beranduago artuco. Eiten dira sei edo bederatzi centimetroco su-luac, amar edo amabi centimetro bitarte dala bata bestiagandic, ta ipinten dira soluetan beracatz atalac gora beguira dabiela euren punta zorrotzac. Ondo achurtu biar da beracatza ereingo dan lurra ta garbitu ondo bedar char guztia ziatz quentzen dirala.

Da mezede andicua beracatz landariarentzat bere ta ayenac biyortutia bere ezade edo jugo guztiya gueratu daquiyan bere sustrai edo buruan. Premiña andi bagarie ez da erregau biar, erregadiyua bere areriyo andiya dalaco.



Porrua

Porrua urtian birritan artzen dan ortu ariya.

Porru muetarie esagunenae dira: *Carentango* porru andigacha, guztiz loriya, naicua luzia, orri luze ta macurtua, guztiz da ederra ta goiztarra. *Brabanteco* porru loriya, bacar-bacarric bereztuten da aurreracoa gandie orriyan, bada *Brabantecoarena* da laburragua ta artezagua. *Ronengo* porru laburra da *Carentango* porrua baño meiagua ta ascozaz chiquiyagua, baño guztiz ederra. Onec dira uraco porruac.

Udaco porrua da *puatocoa* derichona.

Porrua ereinten da urteill ta zezeillian, ta birlandutu solora garagar edo agorrillian, escribietaco lumiaren terziyocuae eguin daitezanian. Aziteguiya ondo buzti biar da, tiraca apurtu bagarie landaria atarateco. Landariae biar dau bata bestiagandie berderatzi edo amabi centimetro bitarte, ta birlanduteco demporan ebagui edo ondo biyurtu biar jacaz orriyac.

Porrua birlandutu baño amabost egun lenago, ondo achurtu biar da solua, ta ongarritu bere bai cortaco satz ondo ustelduicoagaz quilo bat *superfosfatogaz* ta beste quilo bat *clorurogaz*, ta landarae euren sulochuetan ipinita guero, ezarri biar jaca iru quilo *nitrate* sosa iru alditan, amabost egunetic amabost egunera. Porru landarae zeinbat eta nazayago ipinten diran bata bestiagandie, ainbat eta porru ede-

rrago ta galantaguac eingo dira. Da erracuntza andi bat porruac, azac ta urrazac edo lechugac ain zarratu landaratutia.

Orburua edo alcachofia


Ortu ariyau Africatic ecarriya da. Bere muetae dira *Laongo berde loriya*; *Bretañacua* ta *Probenzacua*.

Laongo berde loriya da guztietatic onena, ez baccarie otzac calte guichi eiten deutzalaco, baita bere guztiz samurra dalaco.

Orburua edo alcachofia urte bi edo iruco landaratu gura bada, ondo sacondu biar da lurra achurraz, (layaz edo goldiaz landara asco soloren baten ipini gura badira). Lur au nastau biar da cortaco satzaz, ta al dala lanazco zorqui edo trapu zarracaz, lanazco zorqui onec galtzen dabezalaco, ainbat calte landariari eiten deutzen ar zuriyac.

(1) Orburu edo alcachofiac biar dau lur coipetzua ta alan landaria ipini aurretic, ondo sastu biar da lurra cortaco satzaz, ta ezarri gañera *cloruro potasa* quilo bi, ta zaspí quilo *superfosfato*, area bateco lurra bada, guchiago chi quiago bada, noberac neurtu biar dau, zelacua solua, arenbeste abono eguiteco.

Laongo orburu edo alcachofiac biar dau metro bat ta oguei centimetro bitarte beste landaracgandic. ra emen irudi bat landarac birlandutuleco:



(1) Birlandututen dira agorrillian azquenetarunz edo irailian, uda barriyan batzeco. Zezeillian udagoyenaraco.

Punto batetic besteraño biar dau metro bat ta oguei centimetroco bitartia.

Solua edo cuadrua sacon achurtu, ta ondo sastuta, aurrerau diñodan leguez, eiten dira ogueta amabost centimetro bitarte dirala sulo batetic bestera, aurrerau dagozan puntochuac, adierazo gura daben leguez. Sulo bacochoa betetan da satz ondo ustelduaz, ganera botaten jaca lur puzea bat, ta sultan izten dira amar centimetro leguez utzie, bertan landara sustraya ipinteco; sustraya bacarric tapau biar da lurraraz, barriz bere quirtenac biar dau egon aguiriyan, usteldu ez dedin. Birlandutu landaria, ta oguei egun barru bataten jaca quilo bi nitrato, ta andie oguei egun barru beste quilo bi, ta bardin beste quilo bi, ta bardin beste oguei egun barru. Orburu bitartian ipini leiquez urraz edo lechuga, quipula zuri, edo lazter datorren aza edo beste ortu ariren bat.

Landaria ipinita, zarri edo egunero busti biar dira, lau edo bost orri barric urten arte, barriz guero iru egueneric iru egunera.

(1) Orburu edo alcachofiari sortzen jacaz sustrayan landara barriyac, ta landara onec quentzen jacaz agorrill edo iraillian lenengüetan. Onetaraco aguirituten da sustrai guztiya, ta cuchillo chiqui bategaz quentzen jacaz, ta ez tiraca, bada escuacaz tiraca zauri andiya eguiten jaca, ta indargabetu larreyan landaria; baita bere ebagui biar dira cuchillochu bategaz aurrerauco urtian frutua emon eben ayen guztiyac. Landara bacochari izten jacaz, urrengo urtian frutua emon daguiyen ayenic onen ta gurig-

(1) Zezeillian landaratu ezquero.

nen bi edo iru, ta quendu beste emparau guztiyac, ta estaldu edo tapau lurraz sustrai guztiya, gachic eguin ez daguiyon aiziae.

Parage otzetan quentzen deutzez ayenac orburu edo alcachofia batu ta berbertatie ta guisa onetan urtetan deutzez barriyac.

Zemendiyan lurraren onduan dagozan orri guztiyac ta ayen barri gaste guztiyac ebagui ta quendu biar jaquez, ta estaldu bere bai lurraz landariaren erdiraño, izten dirala aguiriyen erditie gora. Landara guztiya ez da beinbere estaldu biar, artu daguiyan arnaza; guero jorraillian egualdi onacaz, supituan barie, puzcaca-puzcaca aguirituten dira; lenengo egunian quentzen jaca lurra eguberdi aldetie, guero bigarrenian eguzquiyaren urteyera aldetie, guero irugarrenian zarreratie ta azquenengo ipar aldetie.

Orburuaren areriyuae dira galderna edo pulgoia satorrac ta saguac. Galderna quentzen da azi barriyan ur jaboia gorgollotie bere botata; satorra ta saguac laquiyo ta sariacaz eheco saguac leguez.



Arbigorriya edo zanahoriya

Peon edo *casabel* derichon arbi gorriya da arbi mueta guztietatic goiztarrens, iya da biribilla, azal gorriya ta orri chiquicua: mueta-au da guztiz ona, ta batu biar da, oso mardotu baño lenago; bestelan brintzatueo da, ta galdu bere laster.

Labur, *arrautziaren irudicoa*. Mueta-au da gorri illundicua; da naicua goiztarra, baño ez aurrera coa beste. Au ereinten da zezeillatic agorrilla bitartian.

Olandaco gorri laburra. Mueta-au da sustrai chiqui edo laburrecoa, laster datorrena, ta gustu onecoa, samurra, azucaratzua ta usain gozocua. Au bere oso mardotu baño lenago batu biar da.

Nantesa edo zil bagaco gorriya. Mueta-au da dancatic onena, ta batu leiteque garagarrilletic abenduco asquenetaraño; bere burua da samurra, azucaratzua, usain gozocua, ta loriya. Au bere batu biar da oso mardotu baño lenago.

Achicurtco arbi oriya. Da punta zorrotza; bere orriyac guztiz guriyac, ta sustraico azala oriya; guztiz da ederra ta iraupen andicua.

Arbi ori españatarra. Au da autu-autucoa patata ordezesstofauraco edo guisauetaco ta lapicoraco bere samurtasunagaitic. Eltzen da baguilletic aurrera; da oriya ta punta zorrotza. Erein leique urte barruan aldi ascotan.

Arbi zuri idun berdeduna. Onen bururic erdiya

asten da aguiriyen, lurretic campora; be aldetic da azal zuriya, barriz berdía goi aldetic, ta dauca aragui zuriya.

Ortu ari onec ez dau biar cortaco satzie; bacar-bacarric biar dauz abono quimicuac: *Cainita*, *superfosfotua*, ta *nitratua*. Ereingo dan arloa bada chiquichua, naicua da quilo bat cainita, beste quilo bat superfosfato, onec biyoc nastauta; ta nitratoa barriz arbiya erne, ta bacanduten danian. Bacandu biar da, puzcachu bat asten danian, ta gueratu biar dira landarac centimetro bi bitarte alde guztietara dabiela. Bigarren jorralditic amabost edo ogeui egun barru, ta orduan bere barriro bacanduten dira, ta izten dira oingo aldiyan amabost centimetro bitarte dabela landarac alde guztietara. Arbiya zerbait azi ta mardo-tuco bada egon biar dau lurrian nazai, ta bacan aldi bi onetan biar da bota nitrato puzcat.

Lenengo erein aldiya eiten da zezeillaren erdiyan ta erneco da epaillaren asquenetarunz, ta batuteco guisan egongo dira orrillaren ogeuirunz.

Bigarren erein aldiya eiten da jorraillaren lenengo zortzi egunetan. Irugarrena orrillaren lenengo zortzi egunetan. Laugarrena baguillaren lenengo zortzi egunetan ta bostgarrena garagarriaran lenengo zortzi egunetan. Erein aldi onec ein biar dira *Olandaco arbi gorri laburraz* edo *arbi ori españatarraz*; ta lurra bada are lurra, ez da erein biar eguzqui beguitan, ezpada lecu escutuaguan, eguzquiyac erre ez daguizan. Dator ondo arbi gorriya, lur zagarra edo patatia aurrerago artu dan arluan.

Arbi gorriyaren aziya batzeco, aututen dira landarac mardo ta guriyenac: erdibituten da burua ta ayenaz gueratu dan buru erdiya, ebaguiric ayen aren

zati bat, ipinten da barrero lurrian, ogueta amabost centimetro bitarte landara batetic bestera dala. Azitaraco landara onec ipini biar dira garagarrillaren asquenetara, ondo mardotuta dagozala.

Batzen dan aziyae baliyo dau iru urteco; barriz laugarrenian ez da gauza.

Berengena

Berengena erein biar da aziteguiyan epaillian, ta euqui biar da ardura andiya, gaubetan tapetaco aziteguiya lastuaz, batez bere leya ta izotza eingo dabengan, ta egunez bere bai egualdi charretan; bacar-bacarric euquico dira aguiyian egualdi onetan, aritu ez dastezan. Sarrichu erregau biar da. Birlan-dututen da orrillian lei edo izotzaren bildurric ez daguenian; ta ara zelan: Landarac ipinico diran arlo- chua, ondo achortu ta sastuco da cortaco satzaz, ta ganera esarrico jacaz superfosfato puzcat ta cloruro potasio puzcat, ta andic egun batzuetara, goieztariya daguala ipinten dira landarac nazaitzu, ta erreguetan dira egun atan; guero bere erregau biar dira sarri- chu. Landaria zerbait asi ta mardotuten danian, eba- ten jacaz puntae, frutua ariñago etorri daiten. Beren- genia ataldu ta arrautza iribiyatuan eiñecua, guztiz da gozua. Berengeniaren ura guztiz da samiña, ta orregatic atalduten danian, urari jauzten ichi biar jaca, ta quendu ura guero, nastau biar danian arrau- tziagaz.

Berrua

Berrua dator berez erreca charcuetan, baña asco- zaz obia artu lei solo esquiñetan. Ereinten da jorra- llian; baña ascozaz da oba ereintia agorrillian; jorra- llian ereinten dana laster loratuten dalaco, barriz agorrillian ereinten dana, artu lei uragoyenian ta

negu guztiyan, udabarrirarte. Sarri ebagui leique, ta ebagui ta zorzi egun barru, barriro ebateco guisan asten da; bedar oni deitzen deutze Paris-co mercatuan *gorputzeco osasuna*, odola garbitu ta bularra samurtuteco guztiz ona ta alagalacua dalaco. Jaten da urraza edo lechuguia lez oriyo biñagueriagaz.

Sarba

Sarba mueta bi dagoz; sarba zuriya ta sarba berdia. Sarba berdiaren orri ta zanae andiyagoac ta zabalaguac dira zuriyenae baño. Ereinten da aziya arlo basterrian epaellian, ta ez dauco beste zereguiñic, ondoco bedar charrac quendu ta sarrichu udan erreguetia baño.

Iñoz bere, ez da tiraca atara biar landaria, guisa orretan galtzen dalaco landaria, ezpada orriric andiyenac quentzen jacaz cuchillochu bategaz, ta zauritu diran landara guztiyac erreguetan dira beste orri batzuc sortu, ta orri chiquiyac asi daitezcan, ta orrela jarraitu daguiyan orriya emoten luzeruan. Sarba orriyac egosita baba potagiagaz nastian, nai eurac bacarran egosita jaten dira; barriz bere sanac jan leiz esparragua leguez, egosi ta oriyo binagriagaz.

Osasuneraco guztiz dira onac.

Borrayac

Borragiaren aziya ereinten da epailletic zemen-diraño, ta baste zereguiñic ez dauca, bedar charrac quendu, ta nozian bein erreguetia baño. Bere aye-nac ta bere loria aguertzen danetic dira, landara oni jaten jacozanac.

Malluquiya

Malluqui arrontera zabaldu ta gueituten da malluqui garaunaren mamiñ bitartian daguan aziyaz, ta baita bere berac emoten dabezan landara barriyacaz; baña oba ta obariyagoa da, bere aziyaren bitartez eranduten dan malluquiduya, guisa onetan malluqui garauna obetu ta landaria bere iraupentzuago izaten dalaco.

Malluquiyaren aziya batuteco, aututen dira garaunic eder ta onenac; catillochu baten atzamarracaz estutu ta deseguinten dira; garbitzen dira guero uraz, ta baturic guero garaun guztiyac trapochu baten, ipinten dira sicatzen lecu querizpetzu baten, ta guero gordetan dira erein aldirarte.

Aziya ereinteco aldiya edo demporia da jorrail ta orrilla, ta birlanduten dira arlochuan landarac irail, urri ta zemendiyan.

Malluquiya artzen da lur guztietan, batez bere Euscal-erricuan, nun artzen diran malluquiric onenac. Biar dabezan abonucac dira cortaco satz onde ustelduicua, bada satz ein barriya guztiz dau caltegarriya, *superfosfatua* ta *cloruro potasa*. Arloa bada ogueta sei estatucua, sei quilo superfosfato, ta iru quilo potasa. Bada arloa chiquiyagoa, noberac neurtu biar dau guichi gora bera, zeinbat jaocan. Nitrato de sosa iru quilo, ta esarten jaca iru alditan. *Lenengua*, landaria loratzen azi daitenian; *bigarrena* andie ama-

bost egun barru; ta irugarrena beste amabost egun barru.

Aziya ereinten da jorrail ta orrillian, neguan ondo sastuico aziteguiyan. Erreguetan da lenengo ondo, ta lur eralgui icuaz nastauta aziya zabaltzen da ondo aziteguiyan, ta guero erregau sarri sarri, errez erne daiten.

Malluquiduya ipini biar da lecu escutuchuan ta larreyan baric querizpe puzcat daguan lecuan; ta arlo au leen esan dodazan satz ta abonacuaz ondo guertauta euqui biar da illa batzue lenagotic edo negutic, ta alan gura bada iraillian, nai urriyan ta obetuago zemendiyan birlandututen dira aziteguitic lur ta guzti ataraico landarachuac. Oin bete bitarte biar dau landariac bata bestiagandic. Berbertatic erreguetan dira; ta euqui biar da arduria aurrerantzian onduan sortzen jacazan bedar char guztiae quentzeco edo malluquiduya garbi euquiteco.

Malluqui aldiya igaro daitenian, garbitu biar da malluquiduya, ta onduan sortu diran landarac quendu, beste emparauari indarra emoteco; baña ez jaque iñoz bere quendu biar escuz orriric.

Garbi aldiya-au eguiten ezpada garagarrillian, eingo da zemendiyan ta jorratu bere bai bitarte guztiyac ta lurrez bete sustrayac, ta urrengo urteraco sastu ondo, ta ezarri leen marcau dodan neurriyan superfosfatua ta cloruro potasa. Zezeilleco egualdi epelchuetan barriro bere garbituten da ta quentzen jacaz badagoz orri orbelduicuac ta landara alper guztiyac, ta jorratu bitarte guztiyac. Beste onenbeste ein biar da epail ta jorraillian.

Bizcayan ez dago bein bere sicaleric udaberriyan, baña balego erregau biarco litzateque.

Belgican Bizcayan leguez lur guichichu dauque, ta alan lurra ondo aprobechetaco, edo lur guichitan ortu ari asco artzeco, eiten dabez ubideac guisa onetan:

A	o	o	o	o	o	o	o	o	o
B	x	x	x	x	x	x	x	x	x
A	o	o	o	o	o	o	o	o	o

Lenengo A-tic bigarren-A-ra dago metro bat ta ogueta bost centimetro bitarte, ta landaratic landarara oguei centimetro. Jorrail edo orrillian, ereinten dabe A daguan ubide biyetan baba gorriya edo indiya babia: barriz B daguan ubidean malluqui landarac ipinten dabez urriyan; ta onetan eguinie ubideac arlochu baten artu lei babia ta malluquiya era batera. Baña onetara ereiten dan babia izan biar dau baba landara enanua deitzen jaecana, ta ez parracua.

Malluquiduyac irauten dau lau urte ta urrengoco malluquiduya ipini biar da beste lecu baten, ta bardin beste onenbeste ein biar da ortu ari guztiyacaz, urtian-urtian aldatu lecu.

Bularretic dagozanentzat ta arriyaren gacha dauquenentzat guztiz dira onac malluquiyac. Guexo onec jan biar dabe malluquiya goizian ta barauric ariticara, garbitu bagarie, garbitu ezquero, usain asco galtzen dabelaco.

Esparragua

Ire mueta esparrago dagoz, *berdia*, *morantza* ta *olandesa*.

Morantza da ugariya, ta gustu onecua; *berdia* ez da ain ugariya *morantza* leguez, baña bai guztiz obagua; *olandesa* da urriya, baña guztiz sendua ta luzia. Esparragoric onena ta estimagarriyena da *berdia* derichona. Deitzen jaca *berdia*, ez esparrago *berdia* dalaco, ezpada une batzuetan berde puzcat daucalaco, bada berez esparragua zuriya da.

Aziteguiya

Aziteraco autu dan arloac biar dau egon eguzqui beguitan, ta onduan ez dayela euqui sugatz ez arborlaric ta bere lurra chit biguna, edo are lurra.

Arloa sacen achurtu ta landuta, eingo dira ubideac. Lan guzti onec ein biar dira urteil, zezeil edo epaillian, ta izten dira ubideac aguirriyan jorraillerarte. Jorraillian oiñic oiñera eingo dira oin beteco suluac, ta beteco dira sulo onec satz ustelduaz *cainita* ta *escoria tomas* puzcategaz, iru lenmen oñec ondo nastauta lurraz. Sulu onec beteta gañeraño ipinten dira bertan iru edo lau azi garaun, ta onec estaldu edo tapetan dira lur ondo auztuicuagaz, edo surtaco autzaz, edo caleco zazcariagaz. Azi ereinte au ein biar da jorraillaren amabostie aurrera baña orril er-

diraco; ta bost urte barru erneco da. Ereinte aldiyau ein bada auzaz sicatiaz, erregau biar da escuz. Erein da guero, euqui biar dan arduria da, bedar charrac quendu, aldala sustrai ta guzti, ta jorratu premiña daguan guztiyan.

Esparragoduya

Esparragoduya ipinico dan arluac, biar dau egon eguzqui beguitan, ez dedilla egon barruan arbola sustrairic, ez bere onduan sugatzic, izan deilla are lurra, edo bustin guichicua.

Ubidean ein biar dira ogueta amar centimetro diametruan dauquezan suluac, metro erdi bitarte dala bata bestiagandic. Bigarren ubidea ein biar da, ichiric bitarte metro bat ta oguei centimetro, ta alanche beste emparau guztiyac bere.

Esparragüen landara birlandute-au eiten da, asi zemendiyan ta jorrail artian, noz gura. Birlandutuco dan landariac biar dau izan urte bicuac, ta birlandutu orduan, ebaten jacaz puntac. Soluac betetan dira satz zarraz edo ondo ustelduaz *cainita* ta *escoria tomas* puzcategaz, iru lenmen onec ondo nastauta lur bigunaz. Estaldu edo tapetan dira onec lur puzcategaz ta ganian ipinten da landaria, sastraiyaren puntac ebaguita, ta landariaren ganian botaten da ugari cortaco satza, ta onen ganian aria baña asco, ta zeinbat eta gueyago oba, edo gari autza. Sulo bacochian ipini biar dira landara bi, baña guztiz mietz bata bestia gandic, bata galtzen bada, bestia gueratu dedin, ta biyen erdiyan ipinten da palo bat, jaquiteco nun daguan landaria; ta ipini diran landara biyac artu badabe ondo lurra, bat quendu biar da,

calteric ein ez daguiyen. bestiari; barriz biyetatic bat bada macala, macala quendu biar da. Esparragua ez da batu biar lau urte igaro arte, bestelan laster galduco litzateque.

Esparraguduya udagoyenian idiguiten da, ta cui-dau andiyaz ebaguiten da eperdi eperditic erramia, baña sustrayac aren inguruan dauquezan guiyac apurtu baga, ta bertatic estaldu edo tapau biar da, ta bota satz usteldua; ta zereguin au ein da landara guztiyacaz, jorratzen dira bitarte guztiyac; ta au ein biar da urte guztietan. Lan au ein ezpada udagoyenian, ein biar da urteil edo zezeillian. Barriz jorratu ta bedar charrac quendu biar dira, premiña dagan guztiyan.

Bostgarren urterarte ez dira ebagui biar esparraguac jateco; baña quentzen badira, edo ebaten badira laugarrenian, ebagui biar dira, aguertu diran guztiyac, nai dirala zistriñac, nai dirala galantac; bestelan, batu galantac, ta izten badira zistriñac, laster alperrie galduco da esparraguduya; ta au ein bidar da batzen dan guztiyan.

Errefaua edo errabanua

Errefaua edo errabanua ereinten da zezeillatic urrirarte. Erein aurretic lurra landu biar da ondo, ta esarri *superfosfato* puzcat, ta cloruro puzcat, barriz cortaco satzic batbere ez; ta araco erne ta orri puzca-chu bat asi daguiyonian mieztu biar da, landara batetic bestera lau atz bitarte dala; ta mietz aldi onetan, esarten jaca nitrato puzcat. Errefaua edo errabanua erein biar da urraza edo lechuga artian, ez deutzalaco calteric eguiten onduan daucan landariari, ta biyae lan bat biar dabelaco; zarri jorratu ta erregau biar dira. Errefaua edo errabanua lau aste barru dator, maiyan aguertzeco guisan, bada ez jaca ichi biar eltzen. Gatz puzcategaz nastauta jaten da.

Pepiñua

Pepiñua ereinten da jorrail, orril ta baguillian. Jorraillian lecu epelchu baten, barriz orril eta baguillian lecu oschuaguan. Erein baño egun batzuc lenago, achurtuten da sacon arlo basterchu bat, ta eserri *superfosfato ta cloruro potasa* puzcachu bat. Oin biric oin bira eiten dira oin beteco suluac. Sulicu-au betetan da sats ondo ustelduaz, onen ganera botaten da lur puzca bat, lurren ganian ipinten dira bost edo sei azi garaun, ta onec bere estaldu lurras.

Baña aziya erein orduco, euqui biar da amazei

beratzen, ta uren ganian gueratzen diran garaunac, auquetzu biar dira alperrac leguez, barriz beian dagozanac, erein busti-bustiric. Ereinteco aziyac biar dauz euqui iru urte, bada urte bete ta bicuac bere ez dira gauza frutu ona emoteco. Enungo dabe orriya ugari, baña frutu guichi. Iru urtecu da onena frutu asco ta ona emoteco. Pepiñua eldu baño lenago batzenda.

Meloia

Meloia ez da erein biar, pepiñua dagan arloan ez da calabazia dagan arloan bere, bada iru calabaza mueta onec badagoz arlo baten, irurac alperrie galduco litzatequez, ta ez da artuco, ez meloiric, ez pepiñoric, ez calabazatic.

Ereinten da jorrail ta orrilian.

Aziya ereinteco orduan ipini biar da beratzen, ta uren ganian gueratzen diran azi garaunac, ez dira gauza, ta alan auquestu biar dira alperrac leguez; ur barruan dagozanac dira mamintzuac, ta erein biar diranac. Amasei orduan egon biar dira beratzen. Lurra ondo jorratu, ta aurretiaz gozatu biar da *superfosfatuaz* ta *cloruro potasa* puzcategaz. Eiten dira sulochuac, ta bota bertara collara bete *superfosfato*, ta beste collara bete *cloruro potasa*, ta tapau ondo abono au lurraz, ta ganera bota sei azi garaun, ta tapau onec bere lurraz. Erne daitenian, ezarri biar da *nitrate de sal*.

Azitaraco autu biar dira meloiric onenac, ta ichi berez usteldu daitezcan lecu escutuan; ta araco erdi ustelduric dagozanean, idiguiten dira, ta batutenda barruco aziya. Ipinten dira lecu liorrian sicatu dai-

tezan, ta guero gordetan dira, erein aldirarte. Onen aziyac, zein da cureubita guztiyenac, baliyo dabe sei urteraño. Ereinteco onenac dira iru urtecuac. Seitie gora ez dabe baliyo.

Arbichua, edo maico arbiya

Arbichuaren mueta asco dira. *Berlingo arbi chiquiya* da oneneticua, dauca aragui sicua ta chiquiya. *Finlandiaco arbi oriya*, onec dauca aragui ori ta samurra, ta da iraupen luzerocua. Onixec dira Bizcayan erein biar diranac, beste ascoren artian.

Arbichua ereingo dan arloa ondo achurtu biar da, ta eguin ubidean oguei centimetrotie oguei centimetrora sulochuac; sulo onetara botaten da collara bete superfosfato, abono-au tapetan da lurraz, ta ganian ipinten da aziya, ta au bere tapau lurrez.

Garagarril, agor ta irailian ereinten da azi beranducua; Jorrail, orril ta baguillian azi goiztarra. Ez dau cortaco satzie biar, superfosfatua eguin ezquero; au ein ezic, orduan ézarri biar jaca satz ondo usteldu icua. Galderna dau bere areriyua, ta alan landarachua danian orri bicua, arec eta bost orrico ein artian zarri-zarri erregau biar da, jorratu bere bai, ta mieztu, landara asochu badagoz alcarren onduan. Batu biar dira samurehu dirala mairaco, bestelan ez dira gauza. Aziya batzen da ganauen jatecoraco arbiya edo nabua leguez. Jaten dira lapicuan egozita, asa edo babacaz. Utzian egozita, bere zaldia da ona bularreco gacha dauquentzat, ta zaldau azucaratura da guztiz ona estula quentzeco.

Asquena

Gaurco eguneco gaste ascoc uste dabe, gure gurazo zarrac bizi zirala uren bichen ganian; baña ez. Munduac urte guichiz onunz, beste bat dirudi. Amar marayan eguanian lebatza, lebatza jaten eben gure asabac edo gure gurazo zarrac; baña zanian iru laucuen, izten eben bertan bera, esanaz; ¡Ene! ondar bagaco ucha biar da, arenbeste diru emoteco; ¿balitz gueixo batentzat...? Atseguñez; ¿baña gorputz zitala atseguinduteco, emon escu bete diru? Urdell zabala biar da. Gure asabac, zortzi eguneco ogui baltza, ta sebopillaz eiñico lapicocua, bizcochua lez jaten eben; barriz gaur ogui zuri errebarriya, ta iztarreco oqueliaz, edo guichienez egalaz ein baco lapicoco guichi jaten da. Pistola oguiya, fideua ta arroza, urte ascoc ez dala, andiquiyen biyandia zan; barriz gaurco egunian, tutarraz dabiltz edozeinbere echetan, ta andiyena da, ascoc daruela echera, merquiago pasetaco, edo guichiago gastetiarren, pitian-pitian entzun oi dodan leguez. Cafia, ¿noz artzen zan? Biarguñen echietan gabon gabian; barriz gaur, ez bacarric goizeco jan aldiraco edo barauziten, artu oi da urico echietan, baita bere bazarri puntetan, Betzuenen Oiz ta Achiaco bazarri echietan bere. Gaurco munduac beste bat dirudi, ¿nortzue ziran puru ederra espanian ta euren buruac zerden ebezala cafian oiñ azurra ipinten ebenac? Bacar-bacarric errico jaun ta andiquiyac. Barriz gaur edonoc, ez bacarric ondo euquiyac, baita bere nun ilda jauzi ez dauquienac. Orregaitic ez gara miraritu biar badacuzguz Euscalerriyan emacumiac Berberriyan ta Marruecuetan baño

catiguago beti eche suluan sartuta, umechuac goziae illic, ogui ez que, ta ez danquela, noc emon ogui otondo bat, gozia quentzeco. Dacuzcu apapuan bizi diran biarguin alper asco astegun buru zuriyan castian, ez bacarric egunez, baita bere gaubeco ordu beranduetan, marquez batzuc balira leguez, izpillu artian ta irulletazco jarlecu ederretan jarrita, espanian puru ederra dabela arro-arro. ¿Ze mirari bada echeratu daitezanian onec, icusiric eheco apapua, umiac goziaz negarrez, ogui ezque amachori, ez euquiric onec zegaz bete-sabela bere umechuari, matracan badabiz beti senar-emaste bi onec, ta badi-rudi eche onec obetuago infernu bat, cristiñauen echadiya baño?

Luguiñac, gaurco eguneco oitura ta ecandu charrac eldu dira Euscal-erriyan euren erpiñeraño. Gaurco egunian guztiz da gach Euscal-erriyan bizicaya irabastia, sabelac asco escatu ta gach dalaco gara daben beste emotia. Bestetic gaurco egunian languil alper asco dago, barriz meenac ta pinac guichi, ta gauzaric negargarriyena da ofiziyo mueta guztiyac galduta egotia. Arotzeriyac lur jo dau, zapateritziac ez dau lauziri baliyo, arguintzia ez da mecha erre bat beste; ofiziyo onei eguin deutze maquiñeriyac, ibai edo ichasuan arrain andiyac chiquiyai eguin oi deutzena, andiyac chiquiya jan.

Luguiñac, icusi dozuben leguez, gaurco egunian aloguer puzca bat irabastia arotzeriyan, zapatartzan, sartanguitzan arguintzan etc., etc., guztiz da gach, ofiziyo mueta guzti onec oso iruli ta ondatuta ichi dabezalaco, ofiziyo orretan maquiñeriyac eguin dabegan aurrerapidiac andiyac dirialaco. Barriz luquintzan urte guichiz onunz eguin dirian aurrera-

pidiac ez dira chiquiyaguac, alan Franciyan, zein da Belgican, alan Olandan zein da Rusiyan, alan Alemaniyan, zein da Inguelatierran. Ezin zenbatuala milloe litro dira, erreñu onec, alan garitan, zein da artotan, amar urte onunz, abono quimicuacaz, guei tu dabiena. Orregaitic, ichasuan arrain andiyac chiquiyai eguin oi deutzena, zubei bere erreñu onec eguin daguizuben zoriyan zagoze, jarraitzen badozue lurra jorratu ta lantzen, Adan ta Eba gure lenengo gurazuac oi eben leguez.

Luguiñac, chit asco maite zaitubedaz, orregaitic gogo onaz iracurri eguizubez orrichu onec, ta abegui obaguaz artu eguizubez, euretan dagozan iracatziyac, zergaitic eze, leen inzentau deutzubedazan erreñuac eguin badabez luguintzan aurrerapide andiyac, da, asi zirialaco gozatu ta coipetuten euren luguintzaco lurra, cortaco satzaz ganera abono quimicuacaz. Diñogunian gauza ona dala abono quimicua, ez dogu esan gura, abono quimicua obago dala cortaco satza baño; biyac dira onac, ezpada cortaco satzari ezarri biar jacala, lagungarri leguez abono quimicua, labore batzuetan *superfosfatua*, beste batzuetan *cloruro potasa*, beste batzuetan *cainita*, beste batzuetan *nitrate de sal*, barriz munai ta arbolai *escoria tomas*.

Alan bada, luguiñac, ondo daquit nic etzariena bizi uren bichen ganian, beti lurraz burruca bizi zarielaco, ta ezin zeinquiena eguin *chalet* barriric Bilboco arietzan, zuben irabastia urriya dalaco, orregaitic bada, itunduten deutzubet arima-arimatic, ez daguiyozubela gorputz zitalari emon, (iñoz bere asetuco ez dozubelaco), berac escatzen deutzubena, gaureo gaste zoro ta lazatu ascoc oi daben leguez;

orregaitic premiña бага etzaiteze jatzi calera, idantziz ez daguizubezan bertaco oitura ta ecandu charrac; artu eguizubez abegui onaz errico guizon aituac, batez bere zeuben parrocuac emoten deutzubezan itunera edo conseju onac, eguin daguizubezan aurre-rapide andiyac zeuben luguintzan, batez bere dirautzubenian gozatu edo coipetu daizubezala zeuben lurra abono quimicuacaz, ta sartu zaiteziela Sindicatuan.

Orain abono quimico onec erozi biar dozuez edo Durangon, Marquiñan, Guernican edo Bilboco dendaren baten; ta gauza bidezcuana leguez, dendari onec emongo deutzubez, berac zerbait irabazita. Baña sartu zaiteze Sindicatuan, ta guichienez sei edo zaspí errial sacoco merquiago euquico zenduquie, Sindicatuac berac suzen-suzenian eguingo lenquiela-co escabidia fabricara, ta Bilbon guizon aitu batec ondo astertu edo analizanta, auda, ondo icusita oso confiyantzazcuana dan, elduco da zuben escubetara.

Garagarrillian euqui neban juanquizun bat Zarauz, Oyarzun ta Ernanira, ta neure biyotzeco atseguin ta poz andiyaz icusi nebazan luguintzaco eche atarte ascuetan bedar meta ederrac, ta orain urteasco ez dala, lau ganadu cortan ozta-ozta euquezanac, euquezala sei ta zaspí, ta begozan echiac amarreraño egozanac. ¿Zelan uste dozube dauquela obariyau? Basuac achurtu, *escoria tomazegaz* abonau ta bedarra ereinagaz (1). Ez neban icusi Guipuzcoa guztiyan, ibili nintzan erriyetan beintzat, oin bete lur alperric; ez necuzan besteric soluetan labore

(1) Arbolapietan, arbolac bota baric, edo basua mochitu baric.

ederrac ta baso ta mendiyetan bedar landa guriyac baño.

Bizcaico luguñac, laquetu eidazua, itandu daguizubedan, beyolan San Agustin andiyac bere buruari leguez, icusirie bere gaste denporacó lagun asco zirala garbiyac, ta oitura ta ecandu onenuac. *¿Et tu non poteris, quod isti et istae?* ¿Eta zuc, luguin bizcaitarra, ezin eguin zeinque zeure anaya guipuchac eguin oi dabierna, au da baso ta mendiyac achurtu eta euretan erein bedarra, euqui daguizun cortan orain baño bura gueyaco? *Ex te pendet*, zeune gura-menian dago.

A. M. G. D.



BILLABIA

Orrian

Asiyeria. —Lurlantzallai.....	5
Gariya.....	9
Artua.....	13
Lurzagar edo patatia.....	17
Arbia edo nabua.....	21
Sarbagorri edo erremolachia.....	23
Irucocha.....	25
Auzna-bedarra edo achicoriya.....	27
Auznar bedarraren aziya.....	31
Ortu-ariya	33
Baba baltza.....	35
Babia edo Indibabia.....	37
Idarra.....	39
Aza.....	41
Aziya.....	43
Coliflora.....	45
Urza edo lechuguia.....	47
Piparra.....	49
Tomatia.....	53
Quipulia.....	57
Beracatza.....	59
Porrua.....	61
Orburua edo alcachofia.....	63
Arbigorriya edo zanahoriya.....	67
Berengena.....	71
Berrua.....	71
Sarba.....	72
Borrayac.....	72

Malluquiya	73
Esparragua	77
Aizteguiya.....	77
Esparragoduya.....	78
Errefoua edo errabanua.....	81
Pepiñua	81
Meloia	82
Arbichua, edo maico arbiya.....	83
Asquena	84

Illero urte barruan ein biar diran luguin biarrac

URTELLA

Luguintzariya

Secula bedar ta gari soluetan ipinten dira satz pilluac ta abonuae, egualdi onian, ta gura bada zezeillan euretan zabalduteco. Uda barriyan ereingo diran lurrae layatu edo goldatu biar dira. Idigui edo eingo dira il onetan ubideac, urac eyatu daitezcan. Ornidu biar dira il onetan abono quimicuae. Lei oztian jagui edo arrotu diran lurrae, usteldu ez daiten gari aziya, estuaz edo narraz zapaldu biar da ondo lurra. Arto lastua ta soluetan dagozan beste emparauac batzen dira.

Baso, larra, berezi ta landac

Il beran il onetatic jorraillerarte, baso, larra ta berezietan inauzi biar da egur ta abar igarrac. Uda barriyan zugatz landarac ipinteco eingo dira suluac edo sacontzac. Sastu edo ezarrico da *escoria tomas* landa ta munetan.

Matzduya

Matz landarac antuten dira landaratuteco edo morgonetaco, ta autu mentua matzac mentetaco; zabaldu caria edo ezarri abono quimicuae matz eperdiyai; leirie eguiten ez daben egunetan edo epelchu daguanian ezarri lechadia matz motzor edo tronco ta bere abarrai; ein suluac landara barriyac euretan ipinteco; motaiscac edo cogolluac birlandu; landara ta mentuac ipini galdu ez daitezcan lecu epel ta are busti artian.

Ganaduac

Cortac garbitu ta euqui arduria oe ona euqui daguiyen, ta azi cortaco buruai neguco jatecoa emoten ta izco gastiac ta oquelataraco diran ganaduac lori-chen.

Guxtiz da oitura charra, neguan eguzquiyac urten baño leenago, ganaduac cortatic ataratia, ganaduac campora urten orduco erreca charcoco ur ziquin leituac edaten dabezalaco, ta sabeleco miñaz asco galtzen diralaco. Onen onena, oitura galgarriyau betico erbestetutia, ta ez negu, ez ura ganaduric campora ataratia, echian bere errazinua jan ta edan biar daben ura artu baga. Neguan ez dira zarri atara biar echeco aziendac, ezpada ainbat guichien, ta orduan bere, eguzqui epelaz; barriz udan goizeco ta arrazaldeco frescuriaz, baña orduan bere, echian euren erraziñua jan da.

ZEZELLA

Luguintzariya

Amaitu neguco biarrae; jarraitu estuaz edo narraz gari soluae sapaltzen; uda goyenengo laborietaco, zabaldu satza soluetan; asten dira uda barrico ereintiac, gari azul, olo, garagar ta luzagar edo patatia.

Baso, larra ta bereziyac

Batu orbel ta ota bedarrae; ilberan baso, larra ta bereziteyan inauzi egur ta abar igarrae. Uda barriyan sugatz landarac ipinteco, eingo dira soluae edo sacontzac.

Landac

Landac dira allorba, secula bedar, arbi, sarbago-
rri pagach, francesa, ta beste irucoch mueta guztiyac
erain da dagozan soluae. Onec dira landa escuz egui-
ñac. Landa berezeuac, danoc daquigu, zeintzue di-
rian. Axetu ta odoldiya quentzeco, zapaldu ondo es-
tuaz edo narriaz; zabaldu abono *fosfatuac*, *surtaco*
autz ta escoria tomas.

Matzduya

Amaitu il-aurreco biarrae; jarraitu ezarten lecha-
dia matz motzor edo tronco ta abarra, ta ipini ta
mentetan landarac.

Ortuariya

Aziya ereinten da aziteguiyetan, labore goiztarretaco. Eiten dira oe beruac, pecorotz bigunaz ta satz ustelaz, ereinteco aziya. Landuta guertau arloac, euretara birlanduco diran landara gastiac.

Ganaduac

Oquelataraco diran ganaduac azi loritzen, ta larra epeletara atara ganadua.

EPAILLA

Luguintzariya

Jarraitzen dabe uda barrico ereintiac, gari azul, garagar, irucoch, alfalfa, ortu bedar, sarbagorri arbigorri, linazi ta calamu aziyac. Jarraitzen badabe leyac, satz edo abonua ezarrita guero, zapaldu biar da lurra estuaz edo narriaz; muguitac atara.

Baso larra ta bereziyac

Aziteguiyetan ereinten da aziya, ta arbola duyetan miestuten dira arbolac, ta amaitu sagatz-arbola landarac ipinte ta frutu arbolac mentetia.

Landac

Il onen amabostetic ez da eruan biar ganadurie, bederra batuco dan landetara; amaitu narra ta esubara biarrae; achurtu ta urratu sator suluac.

Matzduya

Amaitu mentu ta matz landara ipintiac.

Ortuariya

Guertau arloac indiya baba ta idarrac ereinteco; sastu ta mulotu edo arrotuta ipini lurra; landara arronten azi ereintia azitegui ta oe beruetan.

Ganaduac

Amaituten dira neguco jateco macalac, ta azten dira ugari ta indartzuac, bada guichituaz duaz arbiyac, ta laster azteco muna ta landetacuac. Neguan lan guichi daucana leguez ganaduac, biar dau jateco macala; baña orain azten dirana leguez biarrian, biar dau jateco indartzuagua. Oranche biar da ganaduen apareju ta cortac erandu ta euren arduria artu.

JORRAILLA

Luguintzariya

Oluaren azquen eraindiya; erne diran baba, sarbagorri, lurzagar edo patatai ein bigarren jorraldiya; erein edo birlandu aza, sarbagorri ta patatac; premiña dauquen arloac jorratu ta escubaratu, muguitac ta bedar charrac atara sustarretie gari soluetan.

Baso, larra, ta bereziyac

Izentau ta marcau iñauzi asquenac ta bota biar diran sugatz edo arbolac.

Landac

Amaituten dira landetaco orni-aldiyac; ta il-onen as juenetara egualdi epel ta sicuaz azi leitequez lenengo erregadiyuac ur epel ta gordiña quenduicuagaz.

Matzduya

Guxtiz dira galgarriyac il onetaco leycac edo iñunz otzac, ta alan ondo da erreturac eguitia matzparra-pietan edo matzduyan. Matz mueta on bat obetuten da obetuago azitic; ta alan gura dabenian batec matz mueta bat, obe dau bere aziya erein, ta guero bere landaria birlandu matzduira, matz mueta orren landara bat baño, ta oranche da orretaraoo era ona.

Ortuariyac

Atara biar dira axetara oe beruetatic lora landarac. Erein indiya baba gorri ta zuri eta idarrac.

Ganaduac

Ganaduai emon biar jaque jaten, biarra eguiten daben neurriyan, aldatuten jaquela jateco berdía

sicuagaz. Berarizeo arduria biar da euzui esnedun beyacaz, neurriyan emoten jaquela jateco otza, supituan baric, macaldu ta betecadaric eguin ez daguiyen. Egunez larran edo landetan dagozan ganaduac, cortaratu biar dira gaubez. Izcuai ez quendu ain laster titiya.

ORRILLA

Luguintzariya

Linazi, calamu, serbagorri, luzagar ta artuaren erein asquen aldi ta landaratzia. Aziteguiyetan erne diran aza, sarbagorri fin ta arbichuen landara samurrae euren arloetan birlandu. Lecu epeletan asten da pagach, alfalfa ta beste irucoch mueta guztiyen epai aldiya.

Jorratu il onetan arbi-buru landarae, batez bere sustrai bisartzua dauquen landarae, esateraco: sarbagorriyac, azac, artua ta luzagarrac.

Baso, larra ta bereziyac

Bota edo inauzico diran sutgazac amaitu marquetiagaz.

Matzduyac

Jorratu ta escubaratu matzduyac, ta leiric edo inuntz otzie eguin badaí, ein erreturac or emen, or emen, eguzquiyaren arteyeran, galdu ez daguiyan leyac matzaren loria.

Ortuariya

Ortuariyaren azi ereintia, ta epail ta jorraillian ereindaco landarac arlora birlandu biar dira. Jorratu indiya baba gorri ta zuriyac, ta idarrac.

Ganaduac

Emon ganaduai gueituaz berdia jaten.

BAGUILLA

Luguintzariya

Uda goyenaco laborietaco guertau biar dira lurrac. Era onetan zarri-zarri jorratu biar dira laboria dagueen soluac. Loratu orduco irucocha (1), ein lenengo epai aldiya. Ebaten dira lino bedarrac. Egoi aldian, au da gastelan asten da gal ebaguitia.

Landac

Erdi loratuta dagoanian, ta ez gueruago eiten da irucoch mueta guztiyen epai aldiya.

Matzduyac

Jorratu, escubaratu ta arrotuten da lurra. Il onetan sulfatau biar da matza, *oidium mildew* ta *blak-*

(1) Irucocha da iru orrico bedarrac, pagacha, secula bedarra, etc.

rot deriehen plagac galdu ez daguiyen; ta guero bere sumetan bada gorreñ apur bat, barriro bere bai.

Ortuariya

Il onentan zarri jorratu biar dira ortuco arluac.

Ganaduac

Berde utza emon ganaduai jaten.

GARAGARRILLA

Luguintzariya

Ebagui gariya, ta jo edo ureuldu baño lenago autu biar dira gari bururie onenac, urrengo erein alderaco, ta gari buruaz ein biar da, arto buruaz eiten dana, ebagui punta biyac, ta erdico garaun ederra gorde, urrengo erein orduraco. Gariya ureuldu edo jota guero, nai soluan metac dagozala, solua ondo garbitu biar da areaz; areatu pare bat bidar, ta ortz artian batzen diran bedar, gari zuztar ta lastoacaz ein erreturac, barriz bedar ziquin onec ez bota cortara, ziquindu edo galdu ez daguiyan bertaco satza; burdiñeratu guero zarri zubilla jo arteraño, gari sustar guztiyac quendu ta lau-lau ta samur samur ipiñi arte solua.—Batzen da baba baltz ta liñua. Jorratu artuac.

Landac

Il onen asqueneruntz bigarren epai aldiya; lecu beruetan zarri erregau.

Matzduya

Jorratu matzduya, ta ezarri azufria gorrindu ez dedin.

Ortuariya ta ganaduac

Ortuan aurreco illeco zereguiñac, ta berdiaz guizenduico ganauac saldu.

AGORRA EDO AGOSTUA

Luguintzariya

Gariya ureuldu edo jota guero, solua bedar char ta suztar bagarie ondo garbi edo guiyatu ipini biar da; ondoren goldatu ta sastu, arbi, secula bedar ta onen antzeraco irucochac erein biar diran soluac. Jorratu artuac.

Baso, larra ta bereziyac

Urrengo sugatz landarac ipini aldiraco ein suluac edo sacontzac.

Landac

Erbesteco *illero urte barruan ein biar diran luguin liarren escu-liburuac*, esan arren, secula bedar, pagach alfalfa ta onen antzeco irucochac, ez daucala iru epai aldi baño, dacuzgu Euskal-erriyan, uria

bustiya bada, ta uda goyena ona, daucazala sei epai aldiraño.

Matzduya

Matz batu aldiraco garbitu upalecuac, upa, upel, barrica, trinca ta beste tresnac bere bai.

Ortuariya

Neguraco ortu ariyaren azi ereintia; aza ta coliflorac quimau ta birlandu arloetan. Oranche da era ona mentetaco maetz ta udaco zagarr ta ainbat fruta arbol mueta.

Ganaduac

Emon guraña berde eheco aziendiari.

IRAILLA

Luguintzariya

Il onetan diñue erbesteco «*Illero urte barruan eguin biar diran luguin biarren escu-liburuac*» secula bedar, pagach ta beste irucoch mueten azquen epai aldiya; baña dacuzgu Euskal erriyan, uria bada bustiya ta uda goyena ona, bedar mueta orrec dauquela sei epai aldi. Il onetan orain artua daguan solua, ta bardin patatia daguana, guero zemendiyan erein gura bada gariya, jorratu biar dira ondo, quendu muguiti ta azquiyac, garbitu ondo solua, artzeco

guero garbi garbi ta ederra. Il onetan asten da artua, baba gorri, zuri ta patata beranducua batzen. Oranche asi biar da guiyetan guero gari, garagar ta neguco olua ereingo diran soluac. Sastu ta abonau bere bai. Birlandututen da coliflor ta aza landarac, aurretic ondo guertauta daguan arlor. Coliflor ta aza landarac, ez dabe euqui biar bost orritic gora, ta bost orri onec izan daitezala guriyac ta galantac. Badauca landariae bost orri baño gueiyaco, cochillo zorrotz bategaz, ebaten jacaz. Birlandu orduco, badauca zustraiyan enor edo gariric, cuchillochu bategaz ebaten jacaz, edo quentzen jaca.

Matzduya

Matz batu ta legamiatu eraguiteco ardurac—Upatic igaro ardaua upel edo barricara, otzituta daguanian. Trincatu beña.

Ortuariya

Erein ta birlandu aza, uraza edo lechuga ta oster zuri edo escarolac.

Ganaduac

Irucoch igarra, arbi buru edo sarba gorriyac nastauta emon jaten eheco aziendiari.

URRIYA

Luguintzariya

Jarraitu il onetan jorratzen soluac, ta quentzen bedar charrac, au da, muguiti ta aesquiyac-Guertau lurra guero gariya ta neguco olua ereinteco; amaitu batzez luzagar edo patata ta artoa, asten dala sarbagorri edo erremolachiaz. Echeratu sarbagorri buruac neguraco; baña zarritan zimeldu oi diran leguez eche barruan, onduen da, idiaz edo galzuaz ondo estalduta campoan, baña eche ondoan, euquitia.

Oi dabe batzuc, burdiñeratu lurra ta azaletic il onetan gariya ereintia, baña jaquizue, guisa onetan gariya urriyan ereinten dabenac urri artuco dabela gariya.

Baso larra ta bereziyac

Frutu arbolen lenengo erein aldiya aziteguiyetan edo minteguiyan. Oranche batu biar dira basa macatzac guero mentetaco. Sugatz edo arbolac bota diran lecuetan eiñ suluac edo sacontzac, eria danian guero barriyac jarteco.—Ganaduac bazcatzen ez dabenian basuan, asi leiteque, basuac saztuten, edo abono quimicuac ezarten, au da, *superfostua* edo *escoria tomas*, ta onen ondoren burdiñeratu ondo, ta puzcat, erdiraño leguez azten danian epai aldi bat emon.

Matzduya

Amaituten da matz batzia.—Garbitu trinca ta ardaua eguiteco beste trezna guztiyac. Idigui upa lecuca, axetu dedin ta quendu dedin bertaco uxaña.

Ortuariya

Batu gabonetaco madari, zagarr, inchaur ta castañac—Estalpian ipiñi pilluan sagardua eiteco zagarrac—Uda barriraco erein aza azi, brocul azi ta lechuga aziya.

Ganaduac

Emon eheco aziendiari neguco jatecua. Ganaduai emon biar jaque biar guichi daucanian jateco macalla. baña ugari; biar asco dauquenian indartzua ta ugari.

ZEMENDIYA

Luguintzariya

Ondo da ta alan barren-barrenetic itunduten deutzubet, soluac layatuten asi baño leenago, zabaldu daguizubela *superfosfatua*, ta cortaco satza, ta andie egun batzubetara layatu edo goldatu, ta egun atan edo biyaramunian erein. Il onetan ereiten dira baita here garagar ta olua. Aurrerago batu ezpada sarbagorriya ta gastaña, oranche amaitu biar da batzez. Arto urcultzea.

Landac

Il onetan ein biar dira ubideac.

Baso, larra ta bereziyac

Sastu ezpadira igaro dan illian, sastu il onetan baso ta larrac.

Matzduyac

Iñauzi matzduyac.—Asmau bada matz dui barriren bat eitia, achortu ondo lurrac. Aurreraco urtian euqui badabe gorreña landarac *carbono sulfurogaz* sulfurau.

Ortuariya

Landarac otzari apartetaco ein lastozco estalpechuac. Estaldu otzac galdu leiquezan landarac—Quimau maetzac.

Ganaduac

Bedar sicuaz nastaurico arbi buruac edo sarbago-
rri buruac emon jaten aberiai. Echeratu basora baz-
catzen botaico aberiac.

ABENDUA

Luguintzariya

Il onetan ein biar dira urteco contuac ta inbentariyua—Ubideac eguin edo garbitu biar dira; igaro dan illeco zereguiñac, dira il onecuaac bere.

Baso, larra ta bereziyac

Igaro dan illeco lanac, il onetan bere.

Landac

Ein ur artuerac ta idigui urteyerac, eguinic ubideac, urac eyatu daitezcan, landia sanetaco.

Matzduyac

Jarraitzen dabe inauziyac; ezarri matzai sulfato de cobre, lechadia bere bai abarrai.

CONTUAC

Eheco buru eguiten dabenac, euqui biar dau berrarizeo arduria, eheco sartu urtenac, edo artu emonac contu andiyaz eruateco, bestelan laster icusi lei echia, gautic goizera carmenauta. Alan bada, lu-

guñac, ardura andiyaz cruan eguizube egunero, zer artu ta emun dozuben; illaren azquenian, illa guzticua eguizube; ta guero abenduan errez ataraco dozu, urte guztiyan zer artu dozuben, zer gueratzan jatzen echian, ta guisa onetan jaquingo dozue, zergaldu edo irabazi dan.

Echia suzen ta artez ibilico bada, eche guztietan ein biar contuac dira onec.

A. M. D. G.











